

## EMAKUMEEN IRUDIA HAUR LITERATURAN

### GRADU AMAIERAKO LANA



Egilea: Paguey Alberdi, Irene.  
Tutorea: Etxaniz Erle, Xabier.

2019/ 2020 ikasturtea  
Vitoria-Gasteiz

## **Laburpena:**

Haur literaturaren mundu zabalean murgilduz, emakumeen irudia nolakoa izan den eta gaur egun umeei nolako eredu femenino eta maskulinoak aurkitzen dituzten aztertuko dugu ikerketa lan honetan. Liburuak tresna paregabeak dira umeei txikitatik mundua nolakoa den erakusteko, baita haientzat baliagarriak izan daitezkeen ereduak transmititzeko. Baina, nolakoak dira Haur Literaturan agertzen diren pertsonaiak? Ba al daude eredu femenino eta maskulinoen arteko ezberdintasunik?

Bizi dugun sistema patriarkal honetan genero femeninoa eta maskulinoa modu desberdinetan definitzen dira eta ondorioz, bakoitzari “dagozkigun” rola, izateko moduak eta betebeharrak esleitzen zaizkigu. Errealitate hau Haur Literaturan islatu da beti. Denok irakurri edo entzun ditugu noizbait esperoan dauden printzesa arrosen eta salbatzaileak diren printze urdinen istorioak. Urteak pasa ahala, horrelako istorioek genero estereotipoak indartu dituzte eta umeei, batez ere neskei, eredu pobre eta diskriminatzaileak eskaini dizkiete.

Alabaina, gaur egun gauzak are gehiago aldatzen ari dira feminismoari esker. Mugimendu feministei esker emakumeok geroz eta eskubide eta askatasun gehiago lortu ditugu eta pixkanaka patriarkatuak ezarritako eskuburdinak hausten ari gara. Hala ere, gizartean eman diren eta ematen ari diren aldaketa hauek islatzen al dira gaur egungo umeentzako liburuetan? Zenbateraino eboluzionatu du emakumeen irudiak Haur Literaturan?

**Hitz gakoak:** Haur Literatura, sexismoa, genero estereotipoak, feminismoa, emakumeen irudia

## **Resumen:**

Adentrándonos en el amplio mundo de la Literatura Infantil, mediante este trabajo de investigación analizaremos qué tipo de imagen de las mujeres se ha proyectado en la Literatura Infantil en las últimas décadas y con qué tipo de modelos femeninos y masculinos se encuentran lxs niñxs hoy en día. Sin duda, los libros son una herramienta excepcional para enseñar a lxs niñxs desde muy temprana edad cómo es el mundo que les rodea, como también lo son para transmitir modelos que pueden serles útiles en su día a día. Pero, ¿cómo son los personajes que aparecen en la

Literatura Infantil? ¿Existen aún diferencias entre los modelos femeninos y masculinos?

En el sistema patriarcal en el que vivimos el género femenino y el masculino son definidos de distintas maneras; por consiguiente, se nos son asignados a cada unx de nosotrxs unos roles, unas maneras de ser y unas funciones determinadas. Esta realidad se ha reflejado desde siempre en la Literatura Infantil. Todxs hemos leído o escuchado alguna vez historias sobre princesas rosas que esperan pacientemente y príncipes azules salvadores, héroes. Con el paso de los años, relatos como éstos han reforzado los estereotipos de género y han ofrecido a lxs niñxs, sobre todo a las niñas, modelos pobres y discriminatorios.

Aún así, las cosas están cambiando cada vez más gracias al feminismo. Gracias a los movimientos feministas las mujeres hemos conseguido más derechos y libertades y poco a poco, estamos rompiendo las esposas impuestas por el patriarcado. Sin embargo, ¿se ven reflejados en los libros que lxs niñxs leen hoy en día todos los cambios que se han dado y aún se están dando en nuestra sociedad? ¿Hasta qué punto ha evolucionado la imagen de las mujeres en la Literatura Infantil?

**Palabras clave:** Literatura Infantil, sexismo, estereotipos de género, feminismo, imagen de las mujeres

## **Aurkibidea:**

1. Sarrera .....	4
2. Helburuak eta hipotesiak .....	5
3. Marko teorikoa	
3.1.Zer ulertzen dugu feminismoaz? .....	9
3.2.Feminismoa Haur Literaturan .....	13
3.3. Emakumeen irudia Haur Literaturan .....	16
4. Metodologia .....	22
4.1.Irizpideak eta corpusa .....	22
4.2. <i>Genero analisirako fitxa</i> .....	24
5. Ikerketaren emaitzak .....	26
6. Ondorioak .....	33
7. Hobekuntza proposamenak .....	38
8. Bibliografia .....	39
9. Eranskinak .....	42

## 1.Sarrera:

Ez dut esango irakurtzea betidanik gustatu zaidanik baina liburuak gertu izan ditut nire bizitzan zehar. Nahiz eta txikia nintzenean irakurle amorratua ez izan, irakurri irakurtzen nuen. Baita istorioak asmatzen. Liburutegira joaten nintzela gogoratzen dut, Enid Blytonen *Bostak* irakurtzera. Gero *Pippi Kaltzaluzeren* jarraitzaile egin nintzen eta Elena Fortunek sortutako *Celia* eta helduen munduarekiko zituen zalantzak etxera eramaten nituen maileguan, filma eta guzti. Aurretik *Teo* bildumako liburu guztiak miatuta nituen, baita *Hirukiak eta sorgin aspertua*-renak ere. Urteak aurrera joan ahala, James Matthew Barrien *Peter Pan*, Ludger Jochmannen *Kika supersorgina* eta Lewis Carrolen *Alizia herrialde miresgarrian* bezalako liburuak irakurtzen nituen. Nerabezaroan Federico Mocchiaren *Tres metros sobre el cielo* eta gero, J.K. Rowlingek idatzitako *Harry Potter* eta J.R.R. Tolkienen *El señor de los anillos*-en liburu guztiak.

Bizitzan zehar liburu asko eta asko laztandu ditut. Horietan modu izugarrian gertatzen ziren istorio eta abenturetan murgiltzen nintzen eta egileek sortzen zituzten pertsonaiak nire eredu bihurtzen ziren. Txikiak garenean ez gara horrenbeste konturatzen baina harrigarria da liburuetakoa pertsonaiek guregan duten eraginaz. Oraindik Pippi Kaltzaluzek Villa Villekullako etxea oinekin patinajea egingo balu bezala garbitzen zuela oroitzen dut, baita *Bostak* taldeko Jorge-ri Jorgina izan behar zuela esaten ziotela eta neskek ile motzik eramaten ez dutela esaten ziotela. Liburuen bidez nolabait gure usteak sortzen ditugu, informazioa jasotzen dugu, irudiak ikusten ditugu, emakume edo gizon bezala arrisku batzuei aurre egiten diegu.

Modu batean edo bestean jokatzeko ikasten dugu, eta zer pasatzen da eskaini dizkiguten eredu horiek pertsona gisa onagoak, ausartagoak, jakintsuagoak bihurtu beharrean, estereotipoz jositako esperantza faltsuak eskaintzen badizkigute? Zer pasatzen da liburuetan bakarrik printzesa arrosak eta printze urdinak agertzen badira? Erregeak gizonak badira eta neskameak emakumeak?

Horregatik da horren garrantzitsua literatura, haurrek liburuaren barruan aurkitzen dutena ulertzea bezain garrantzitsua. Hau izan da nire arrazoia Haur Literaturako emakumeen irudia aztertzeko; umeei eskaintzen zaiena beti lupaz begiratu behar delako. Ez duelako edozerrek balio. Umeei hoberena merezi dutelako.

## **2. Helburuak eta hipotesiak:**

Behin lan hau egitearen zergatia mahai gainean jarri dugula, ikerketa honen helburu nagusia gaur egun kontsumitzen den Haur Literatura zer nolakoa den aztertzea izango litzateke, konkretuki, gizonen (mutilen) eta, batez ere, emakumeen (nesken) irudiek eboluzioa izan duten ala ez baieztatzeko. Beste modu batean esanda, gaur egungo umeei ipuinen bidez jasotzen dituzten eredu berriak aztertzea eta hauetan genero estereotipoak igortzen jarraitzen diren miaztea. Hortaz, ikerketa honi esker jakinen dugu: gaur egun irakurtzen den Haur Literaturak eskaintzen dituen gizon/emakumeen modeloak sexistak diren edo feminismoaren bidea hartuta, gizon/emakumeen modeloek parekidetasun handiagoa erakusten duten eta ondorioz, egungo errealitatera gehiago gerturatzen diren.

Helburuekin jarraituz, aipatzekoa da, aurretiaz emakumearen irudiaren inguruan (Haur Literaturan) argitaratu diren beste ikerketa batzuk kontuan hartuko eta nire ikerketaren emaitzak lan hauetan ateratako emaitzekin alderatuko direla, emakumeen roletan eboluzioa egon den edo ez argiago ikusteko. Batez ere, konparaketa Eneko Fernandez Artigasen (2017) *Emakumearen irudia Euskal Haur Literatura modernoan. 1980ko hamarkadako eta gaur egungo egoera* deituriko doktore tesian ateratako emaitzekin egingo dut.

Hau horrela, genero perspektiba izatea beharrezkoa izango zaigu gaur egun eskura dugun Haur Literaturan agertu daitekeen sexismoa detektatzeko eta lortu nahi ditugun helburuak betetzeko. Ikerketaren helburu nagusia eta bestelako helburu batzuk bete ahal izateko, hurrengo atalean azalduko dudan bezala, aurretiaz planteatutako hipotesi batzuk formulatuko ditut, helburuekin erlazioan egongo direnak.

### **Helburu nagusia:**

Gaur egun irakurtzen den Haur Literaturan (0-7 urte) agertzen diren emakume/gizonen ereduak zer- nolakoak diren aztertzea genero ikuspegitik.

### **Beste helburu batzuk:**

- Egungo Haur Literaturan emakumeen eta gizonen presentzia (kuantitatiboki) berdintasunerantz eboluzionatu duen aztertzea.

- Egungo Haur Literaturan sexu femeninoari eta sexu maskulinoari esleitzen zaizkien fisikoarekin zerikusia duten ezaugarri sexistak detektatzea.
- Liburuetan agertzen diren emakume- nahiz gizon- ereduen nortasuna eta izaera (ezaugarri psikologikoak) analizatzea.
- Pertsonaia horietan ematen diren berrikuntzak aztertzea: lanbideak (boterea: bai/ez-soldata: bai/ez), espazioak (espazio pribatua/espazio publikoa) eta etxeko lanak eta zaintza (nork?).
- Emakumea nahiz gizona izan, sexu bakoitzak aisialdian betetzen dituen ekintzak parekideak diren ala ez aztertzea (Zer egiten dute mutilek? Eta zer neskek? Ba al dago oraindik desberdintasunik?)
- Adela Turinek aztertutako sexuaren arabera bereizitako sinbologia gaur egun ere betetzen den ala ez frogatzea (betaurrekoak, egunkaria, amantala, maletina, katua...).
- “Neskak arrosaz eta mutilak urdinez”. Koloreen mito sexista hau betetzen den ala ez aztertzea.
- Orokorrean, etxeko alorra/espazioa zeini dagokion ikustea.
- Aurretik argitaratu diren emakumeen (nesken) irudiaren inguruko beste ikerketetako emaitzak nik ateratako emaitzekin (2020. urtean kontsumitzen den Haur Literatura) alderatzea, emakumeen ereduetan eboluziorik egon den ala ez egiaztatzeko.
- Feminismoaren, sexismoaren eta Haur Literaturako emakumeen irudien inguruan hausnartzea.
- Hezkidetzaren/feminismoaren garrantzia eta beharra azpimarratzea (bai gizartean, bai Haur Literaturan ere).

## **Hipotesiak:**

GRALeko helburuei lotuta, arestian ikerketa egin baino lehen planteatutako hipotesi batzuk ditugu. Hipotesi hauek nire usteak izanik, aurrerago liburuak aztertuko ditut nire hipotesiak betetzen diren ala ez baieztatzeko. Lehen aipatu bezala, helburu bakoitzeko hipotesi bana formulatu dut, hala ere, hipotesi bakoitzaren barruan, hipotesi konkretuago batzuk mahaigaineratu ditut aurrerago ikusiko dugun “*genero analisirako fitxa*”-n ezaugarri oso konkretuak aztertuko ditudalako.

**I.Helburua:** Egungo Haur Literaturan emakumeen eta gizonen presentzia (kuantitatiboki) berdintasunerantz eboluzionatu duen aztertzea.

→ **I. Hipotesia:** Lehen protagonista gehienak maskulinoak ziren heinean ( eta emakumeak 2. planoan gelditzen), orain emakume protagonisten presentziak gora egingo du. Beraz, nire ustez, protagonista nagusi eta orokorren aldetik parekidetasun handiagoa egongo da.

**II.Helburua:** Egungo Haur Literaturan sexu femeninoari eta sexu maskulinoari esleitzen zaizkien fisikoarekin zerikusia duten ezaugarri sexistak detektatzea.

→ **II. Hipotesia:** Pertsonaien ezaugarri fisikoei erreparatuz, uste dut oraindik sexu bakoitzari ezaugarri sexistak esleituko zaizkiola; emakume gehiago egongo dira ederrak eta baita itsusiak ere; eta emakume gehiago argal edo lodi. Bestalde, gizon indartsu gehiago agertuko dira emakume indartsuak baino.

**III.Helburua:** Liburuetan agertzen diren emakume- nahiz gizon- ereduen nortasuna eta izaera (ezaugarri psikologikoak) analizatzea.

→ **III. Hipotesia:** Orokorrean parekidetasun handiagoa egongo da nortasun eta izaeraren aldetik. Hala ere: Menpeko emakume gehiago. Gizonak baino emakume pasibo eta sentibera gehiago. Gizonak adoretuagoak, lehiakorragoak eta indarkeria gehiago erabiliko dute.

**IV: Helburua:** Pertsonaia horietan ematen diren berrikuntzak aztertzea: lanbideak (boterea: bai/ez- soldata: bai/ez), espazioak (espazio pribatua/espazio publikoa) eta etxeke lanak eta zaintza (nork?).

→ **IV. Hipotesia:** Oraindik sexismoa aurkituko dugu: gizon gehiagok izango dute boteredun lanbide bat eta ondorioz, hobeto ordaindutako lanbidea. Espazio pribatuan eta etxeke lanetan emakume gehiago agertuko dira.



**V. Helburua:** Emakumea nahiz gizona izan, sexu bakoitzak aisialdian betetzen dituen ekintzak parekideak diren ala ez aztertzea (Zer egiten dute mutilek? Eta zer neskek? Ba al dago oraindik desberdintasunik?)

→ **V. Hipotesia:** Orokorrean parekidetasuna egongo da ekintzetan. Hala ere: Etxe barruan jolasten duten emakume gehiago agertuko dira. Aldiz, etxe kanpoan jolasten duten gizonezko gehiago. Bestalde, gizonek gehiago bidaiatuko dute.

**VI. Helburua:** Adela Turinek aztertutako sexuaren arabera bereizitako sinbologia gaur egun ere betetzen den ala ez frogatzea (betaurrekoak, egunkaria, maletina, katua...).

→ **VI. Hipotesia:** Nire aburuz bai, oraindik sinbologia sexista asko agertuko da (gizonak egunkari eta betaurrekoekin, emakumeak amantalarekin, katuarekin etab.).

**VII. Helburua:** “Neskak arrosaz eta mutilak urdinez”. Koloreen mito sexista hau betetzen den ala ez aztertzea.

→ **VII. Hipotesia:** Bai, oraindik koloreen patroi hau agertuko da. Hala ere, emakumeetan kolore urdina ikusiko dugu. Aldiz, gizonezkoetan arrosa ez.

**VIII. Helburua:** Orokorrean, etxeko alorra/espazioa zeini dagokion ikustea.

→ **VIII. Hipotesia:** Emakume gehiago (amak, alabak, amonak...) agertuko dira etxean gizonak baino (aitak, semeak, aitonak...).

### 3. Marko teorikoa:

#### 3.1. Zer ulertzen dugu feminismoaz?

*“El feminismo es la idea radical que sostiene  
que las mujeres somos personas”*

Angela Davis

Gure gizartean denbora luze eta jarraian pairatu den bidegabekeria sozial argienetako bat emakumearen aurkako diskriminazioa izan da. Feminismo ikuspuntutik egin diren hausnarketa ugarietarako esker, jakin badakigu emakumeek historian zehar jasan duten zapalkuntzaren ondorioz, gizonezkoek baino bizitza askoz zailagoa eta gogorragoa izan dutela. Bi generoen arteko bereizketa eta emakumeak gizonarekiko izan duen eta oraindik jarraitzen izaten duen mendekotasunak luzaroan iraun dezan, diskurtso ugari sortu dira egoera edo rol hauek legitimotzat har ditzagun. Modu honetan, gizonak betidanik izan du emakumeak menpekotasuneko rol sozial hori onartzeko boterea (Del Olmo Campillo, 2016). Gure inguruan topatzen ditugun faktore soziokulturalak direla medio; emakumearen aurkako diskriminazioa gizarteko eremu sozial guztietan dago finkatuta, esparru publiko nahiz pribatuan. Gure kulturaren parte dira, besteak beste, generoaren, arrazaren eta klase sozial desberdinen arabera esleitzen diren rol edo eginkizunak (Quesada Chamorro, 2012).

Gainera, historiaren garapenean, kultura, erlijio eta ohituren bitartez gizarteko sexu bakoitzak eduki beharreko rol eta paper ezberdinak finkatzen diren baloreak transmititu dira. Orokorrean emakumeak espeziearen ugaltze-prozesurako eta haur eta etxearen zainketarako destinatatu izan dira. Gizonezkoaren helburu nagusia, aldiz, familiaren iraupenerako beharrezkoak diren baliabideak eskuratzea izan da. Ondorioz, emakumezkoa etxeko esparruan zokoratua egon da, non gizonezkoak bakarrik izan duen esparru honetatik kanpoko kontaktua. Hitz batez, emakumeak historian zehar marjinazio- eta sumisio-kolektibo egoera argia jasan du (Ortiz Txabarri, 2015). Gizonezko sexuari esleitutako jarrera eta jokabideak, bestalde, betidanik izan dira gainartzaileak; emakumezkoen jokamoldeak, ostera, transzendentzia gabekoak izan dira gure sozietatean. Horren haritik, genero jakin batek bestearekiko eduki dezakeen nagusitasunak egitura hierarkiko sozial bat eraikitzea bultzatzen du, zeinak norbanako bakoitzaren posizioa determinatzen duen, inolako gaitasunik erreparatu gabe. Hierarkia mota hau *sistema patriarkatua* izenarekin ezagutzen dugu (Subirats, 1998; Cruz Díaz, 2004).

Patriarkatza, gizonezkoen artean itundutako klasearteko sistema, botere orokorreko orden bat da (Lagarde, 1996), zeina gizonezkoek emakumea menpean edukitzean oinarritzen den. Dominazio mota honek kontrol kapitalista indartzen du eta era berean balore kapitalista hauek sistema patriarkalarentzat zer den egokia eta zer ez definitzen dute (Hartmann, 1981, 27). Botere mota honek gizona boterean mantentzea baimentzen du, emakumearenganako kontrola hartuz eta beraien eginbeharra etxeko-alorrera mugatuz (Brunet Icart, 2008). Kontrol honek onura ugari ematen dizkio gizonari, etxe barneko eta kanpoko eginkizun desatseginetatik aldentzea: komunak garbitzea, bulegoetako langileei kafea zerbitzatzea edota zerbitzu sexualak eskaini beharra izatea, adibidez. Azken finean, gizonezkoak emakumezkoarengan egiten duen jabekuntzan datza, non genero femeninoa menperatze egoeran geratzen den, modu zapaltzaile eta injustuan (Molina, 2007:172; Brunet Icart, 2008). Cunningham (1998) kritikari feministak argi eta garbi esaten du, emakumea gure gizartean bere elementu zapaltzailearekin elkarbizitzen den kolektibo zanpatu bakarra da (Molina Barras, 2015). Nuria Varela (2008: 47) iritziz, "sistema patriarkala hertsaduran eta onarpenean oinarritzen da: biolentzia eta hezkuntza"; zeina paradoxa handi bat den, zeren eta alde batetik, genero berdintasunaren aldeko diskurtso instituzional bat ematen den, biolentzia alde batera uztekoa, etab. baina bestalde, behin eta berriz dominazio sistema argi bat erreproduzitzen da, emakumea zapaldua geratzen delarik (Molina Barras, 2015). Gai honekin jarraituz, Varela (2005) genero ezberdintasuna oraindik indarrean dagoela kontziente izatea ezinbestekoa ikusten du, arazo-soziala ezagutuz nahiz onartuz eta gure gizartea "betaurreko zorrotz" batekin aztertuz (Gual de Torrella Bennisar, 2018).

Horrela, genero "femeninoa" kontsideratzen den guztia baliogabetua eta sistematikoki ordezkatua geratzen da genero "maskulinoaren" atzaparretan. Emakumezkoa bigarren planoan geratu behar dela ikasten da, ez omen dute merezi inolako ahomenik ezta beraien ahalmena aztertzeko beharrik, hots, ikusezintzat hartzen dira. Honetaz gain, gizarte "modernizatu" makillatu honek oraindik kanon argi batzuk markatzen ditu: emakumea edertasunaren irudi eta gizona, aldiz, lehiakortasun eta indar fisikoaren eredu (Quesada Chamorro, 2012).

Bestetik, Del Olmo Campilloren ustez (2016), bistakoa da emakumearen ilusio eta itxaropena zehazten dituen espektatiba sozial bat existitzen dela. Gure gizartean beraiengandik espero dena bete dadin presio handi bat dago barneratua. Hala eta

guztiz ere, hertsadura honek ez du beti sistema patriarkalak desiratutako emaitza lortu; garai desberdinetan emakume ugari matxinatu baitira eta egoera hau aldatzen ahalegindu baitira. Modu honetan, batzuek genero berdintasunezko hezkuntza aldarrikatzen zuten heinean, beste emakume batzuek boto-eskubidea lortzeak aldaketak ekarriko zituela espero zuten, bazegoen beste emakumezko sektore bat zeinak gizarte patriarkalak inposatutako arau eta ohiturak desobeditzen zituen. Hauek guztiek helburu jakin batekin, noski, gizarte justuago eta bidezkoago bat lortzea. Del Olmo Campillok (2016) azpimarratzen du aldarrikapen sozial hauek ez zirela ongietorriak, gizarteko agintariak mehatxu bezala kontsideratzen baitzituzten. Guzti honekin ezin dugu ahaztu, gaur egun daukagun “berdintasuneranzko” egoera hau emakumearen indarra eta pertseberantziari zor diogula, beraiekin aldaketa-sozial anitz lortu baitira (Del Olmo Campillo, 2016).

Ildo beretik, Muraroren (2000) ustez, feminismoak emakumeari gizartearen barne-arau eta ohiturak aldatzea posible denaren konfiantza ematen dio, betiere emakumeen arteko ezberdintasunak eta orokorrean gizakiekin eduki ditzakeen desberdintasunez kontziente izanik. Honela, feminismoak errealitatea aldatzeko gaitasuna dauka, baina ez boteretik baizik eta guzti honetan kontzientzia hartzeko balio duten ekintzen bitartez. Murarok subjektibotasun femenino honi “sinbolikoaren politika” izendapena ematen dio (2000:46), eta honek emakumea gizonaren aurrean beste modu batera erlazionatzearen aldaketa ekarri du, errealitate berri bat planteatuz (León Rodríguez, 2008). Era berean, García Jiménez, Cala Carillo eta Trigo Sánchezen (2016) ikerketak erlazio zuzena ikusten du feminismotik egiten den aldarrikapenaren ezaguera eta aldaketa positiboaren artean. Teoria hau oinarritzat harturik, herritarrak genero perspektibatik eta feminismoak eduki ditzakeen sinesmen faltsuak hausten dituen ikuspuntutik heztea nahitaezkoa ikusten dute (Gual de Torrella Bannasar, 2018).

Honen harira, feminismoa sexu desberdinen arteko orden sinboliko eta estrukturala zalantzan jartzen duen mugimendu politiko, kultural, ekonomiko eta sozial bat da. Hori dela eta, genero desparekotasuna eta gizonen emakumearengan daukan boterea deuseztatzea du helburu nagusizat (Serret, Alfie eta García Castro, 1991). Halaber, berdintasuna lortzearen bidean diarduen mugimendu dinamiko eta moldagarria da (Gutiérrez Esteban eta Luengo González, 2011). Ildo beretik, Victoria Sau (2000) psikologo eta aktibistak ondorengoa aditzera ematen du:

Feminismoa XVIII. mendearen amaieran sortzen den eta emakumea talde edo kolektibo gisa kontzientzia hartzen duen mugimendu sozial eta politikoa da. Historian zehar zapalduak, menperatuak, esplotatuak eta gizonezko kolektibotik objektu bezala kontsideratuak izan direnaren kontzientzia hartzen duen eta ekintza desberdinen bitartez diskriminazio honi aurre egiteko sortutako mugimendua da (Gual de Torrella Bennisar, 2018: 121-122).

Bestalde, Carlos Lomasek (2003) adierazten duenez, gizartean topatzen ditugun identitateak aniztasun handikoak dira. Ez dago femenino eta maskulinoa den esentzia naturala modu zurrunean definitzen duen prototiporik, hau da, kulturantzatasunak baldintzatutako identitate desberdinen mosaikoa topatzen dugu gure herritarron artean, emakumea edota gizona izan. Beste hitz batzuekin esanda, ez dago gizon edo emakume izateko modu finko bat, baizik eta talde sozialak, adinak, pentsamoldeak, estatus sozioekonomikoak, orientazio sexualak, azken finean, pertsona bakoitzak mundua ulertzeko daukan moduak baldintzatutako milaka nortasun desberdin (Aguilar Ródenas, 2008).

Haur guztia esanda, Joan Scott (1988) historialari eta teorialari feministak mugimendu feministak bere helburuak modu egokian lor ditzan talde hau definituko duen teoria bat sortzeko beharra ikusten du eta honetarako lehentasunezko hainbat eginbehar azpimarratzen ditu; besteak beste, patriarkatua sakonean aztertzea, pluraltasun eta dibertsitatean pentsatzea, orain arteko sistema kontzeptuala puskatzea edo genero ikuspuntu desberdin bat edukitzea (Reverter Bañón, 2010). Teoria kritiko hau gure gizartean uztartzeak, orain arteko genero eta estruktura sozialaren interpretazio distorsionatuak saihestea ahalbidetzen du (Amorós eta De Miguel, 2007c:21). Denok bide berdinetik joatearen garrantzia nabarmentzen da gizon eta emakumearen arteko ezberdintasun eta rolak definitiboki desagerrarazteko. Hortaz, esan beharrik ez dago, feminismo mugimendua diskriminazioaren kontra borrokatu eta berdintasunetik heziko duen hautabide oso boteretsua dela (Brunet Icart, 2008).

Behin historian zehar emakumeak eduki duen rolaren bilakaera aztertzen duen informazioa azalduta, esan dezakegu Antzinarotik gaurdaino emakumeak gizartean izan duen paperak aldaketa ugari pairatu dituela. Nahiz eta prozesua oso motela izan den, genero berdintasunaren ikuspuntutik hainbat lorpen egin direla onartu beharra daukagu. Hala ere, genero bereizkeriaren kontrako borroka ez da bukatu, oraindik arazo hau hainbat sektoretan bizirik baitago (Baños Fernández, 2015). Oraindik

sistema patriarkalak zer den egokia eta zer ez bideratzen jarraitzen du, “tradizioa”-ren izenpean arauak finkatuz eta betiko ohitura hauek aldaezinak kontsideratzen (Quesada Chamorro, 2012).

### **3.2.Feminismoa Haur Literaturan:**

*“Existen pocas armas en el mundo tan poderosas  
como una niña con un libro en la mano”*

Malala Yousafzai

Urteak pasa ahala geroz eta pertsona feminista gehiago (emakumeak batez ere) ari dira sexismoa eta patriarkatua iraungitzeko lan pisutsuan. Baina gizartea aldatzen den heinean aldatzen al da Haur Literatura? Ze puntutaraino da hori erreal? Zalantzarik gabe, feminismoak geroz eta indar gehiago dauka gure inguruan baina, berdin gertatzen al da Haur Literaturan eta honek txikienei transmititzen dizkien emakume zein gizonen eruedetan?

Haur Literaturako sexismoaren inguruan egin diren ikerketak orain dela urte gutxi hasi ziren. Eneko Fernandezek (2017) aipatzen duen bezala, lehenengo ikerketa 1971. urtean New Jersey-ko Princeton Unibertsitatean egin zen. 15 bilduma aztertu ondoren irakasle feministek ondorioztatu zuten umeei gaztetatik, gizonak emakumeek baino protagonismo gehiago merezi dutela ikasten zutela, liburuak eskaintzen zituzten modeloak zirela eta (gizon aktibo eta dominatzaileak eta emakume pasibo eta intuitiboak). Bestalde, 1980ko hamarkadan UNESCOk zazpi herrialde ezberdinetako eskoletako liburuak aztertu zituen sexismoa detektatzeko eta ezabatzeko asmoz. Hauetan umeei estereotipo sexistak transmititzen zizkietela ziurtatu zuten.

1994an, Davisen *Sapos y culebras y cuentos feministas. Los niños de preescolar y el género* liburua argitaratu zen gaztelaniaz. Davisek genero bakoitzari esleitzen zitzaizkion ezaugarri negatiboak zerrendatu zituen (emakume ahula, sentsibilitaterik ez duten gizonak) eta emakumeei esleitzen zaizkienak gizonenak baino negatiboagoak zirela ondorioztatu zuen. Aipatutako urte honetan ere, Du Côté des Filles elkarte europarra sortu zen sexismoaren kontra borrokatzeko. Haien helburu nagusia sexismoa ezabatzea eta antisexismoaren alde egitea zen. Xedea hori zela, 1996. urtean Frantziar, Italian eta Espainiar album ilustratuen inguruko ikerketa bat abiatu zuten, *Atención álbum* deiturikoa. 736 liburu aztertu zituzten eta familiaren eta

gizartearen estruktura zeharo estereotipatua transmititzen zutela ondorioztatu zuten (Du Côté des Filles, 1998a: 2), baita mundua batez ere maskulinoa zela, “*Los álbumes muestran invariablemente una imagen masculina del mundo*” (Du Côté des Filles, 1998b: 5). Ikerketa honen aurrean, Adela Turinek eta Teresa Colomerrek (1998) pertsonaia femeninoen urritasuna eta emakume independentearen falta salatu zituzten.

Colomerrek (1999) adierazi bezala, ez dago Haur eta Gazte Literatura (HGL) baino material hoberik gure gizarteak zein modutan gobernatu nahi duen jakiteko. Horregatik, HL-ak aurkeztu zituen gabezia horiei aurre egiteko, batzuek betaurreko moreen erabilera eta sexismoa kritikatzeko tresnak sortzeko beharra aldarrikatzen zituzten. Hala, 1995ean, Turinek *Los cuentos siguen contando* liburua argitara eman zuen. Bertan Haur Literaturan agertzen ziren emakumeen irudiak aztertu zituen, baita sinboloak, pertsonaien paperak, rolak etab.

Lau urte geroago, 1999an, Xabier Etxanizek “Investigación en la literatura juvenil vasca” deituriko artikulua argitaratu zuen *Psikodidaktika* aldizkarian. Honek euskal letretan egindako ikerketa ezberdinen berri emateaz gain, emakumearen irudiaren inguruko ikerketa aurkeztu zuen. Ikerketa horren ondorioz azpimarragarriena honakoa izan zen: 1990 hamarkadako euskal HGL ez zuela hezkidetzaren bultzatzen baizik eta estereotipo sexualak sustatzen zituela, bi sexuen arteko berdintasun falta areagotuz. Bost urte geroago, 2004an Etxanizek berak “La ideología en la literatura infantil y juvenil” artikulua idatzi zuen eta euskal haur literaturako ideia jakin batzuk zein modutan transmititzen ziren arakatu zuen, hala nola, emakumeekiko estereotipoak, indarkeria eta ideia erlijiosoak. Atera zituen emaitzen artean, esanguratsuen emakumeen protagonismo falta (bakarrik liburuen %18,18an agertzen ziren, gizonak %60,61ean agertzen zirelarik) eta sexu bakoitzari atxikitzen zitzaizkien lanbide moten desparekotasuna izan zen (Fernandez, 2017). Barraganek ere (1989) Haur Literaturak gizarte sexista eta baztertzailerik bat eskaintzen zuela salatu zuen. Horregatik, Literaturak emakumeen ikuspegi propioa erakutsi beharko lukeela eta eskoletan erabiltzen zen HGL dibertsifikatu behar zela aldarrikatzen zuen.

Halaber, ezaguna da Colomerrek (1994) idatzitako “A favor de las niñas” artikulua. Honek 150 liburu aztertu zituen gizartean emakumeen inguruan emandako aldaketak Haur Literaturan isla zuten ala ez egiaztatzeko. Horretarako, besteak beste, protagonista femenino eta maskulinoen banaketa, lanbideen banaketa eta

emakumeen rolak eta ezaugarriak ikertu zituen. Colomerren emaitzek aldaketa sakonen beharra erakutsi zuten.

2009an Gabiria idazleak *Emakunde* aldizkarian “Haur Literaturako rolak eta gizarte eredu berriak” artikulua idatzi zuen eta bertan sexu rolek Haur Literaturan duten pisua eta nolakotasuna aztertu zituen. Alde batetik, neskek jarduera gutxi betetzen zituztela eta, aldiz, gizonen jarduera kopurua askoz anitzagoa zela ondorioztatu zuen. Bestetik, mutil protagonistak ikasleak, printzeak, alkateak, abokatuak... zirela eta neska protagonistak, aldiz, ikasle edo etxekoandreak. Bestelako gaiak ere aztertu zituen, hala nola, soldaten banaketa eta sexu bakoitzari esleitutako izaera. Bere lanak Haur Literaturan aldaketak eragingo zituenaren ustean, 2014an 8-10 urte tarteko eta 2012an argitaratutako ipuinak aztertu zituen. Ostera, jasotako datuak plazaratzeko, “Sexuaren araberako rolak Haur Literaturan” deituriko hitzaldia eskaini zuen Bilbon. 2012ko liburu horietan aldaketak egon zirela adierazi zuen. Hala nola, protagonista femenino gehiago agertzen zirela, emakume langile gehiago agertzen zirela edota tradizionalki gizonenak izan diren rolak emakumeei esleitu zaizkiela (Fernandez, 2017).

Bestetik, Martinezek (2013) “La construcción de los espacios públicos y privados en la literatura infantil vasca” artikuluan Zer kontatzen dute euskal ipuinek emakumei buruz? Emakumeen kontrako biolentzia sinbolikoaren analisi bat (2013) ikerketaren emaitzak eta ondorioak biltzen ditu. Emaitzek emakumeen presentzia urria eta emakumeen agerikotasun faltarekin hausten zutela erakutsi zuten arren, sexismoa akabatu zela ezin zen baieztatu. Izan ere, kuantitatiboki aurrera pausu bat eman zen arren (emakume idazle eta ilustratzaile gehiago, protagonista femenino gehiago, emakume gehiago espazio publiko eta semi-publikoan, etab.), patriarkatua mantentzeko tresnak ugariak ziren.

Azkenik, Cañamaresek (2004) egindako ikerketa daukagu. Honek sexismoari aurre egiteko egileek genero bakoitzaren rolak inbertitzen zituztela ondorioztatu zuen, hau da, tradizionalki gizonenak ziren jarrerak emakumei izendatzen zitzaizkiela eta alderantziz. Alabaina, honek arrisku bat zekarren: “maskulinoztat” jotzen zena goraiatzea eta “femeninoztat” jotzen zena mespretxatzea:

En esta inversión de roles suele ser bastante común que se presenten de forma muy positiva a las niñas que realizan juegos



o repiten comportamientos “masculinos”, mientras que las actividades considerables tradicionalmente femeninas se presentan de un modo jocoso y peyorativo sobre todo si el que las realiza es un niño (Cañamares, 2004, 157. or.).

Horregatik, liburuetan emakumeen presentzia handiagoa egoteak eta rolak inbertitzeak ez du esan nahi sexismoari amaiera ematen diogunik. Turinek (1995) salatu bezala, emakumeen irudiak oraindik irrealak eta diskriminatzaileak dira. Hortaz, Haur Literaturak emakume arduratsuak, argiak eta autonomoak erakustea beharrezkoa da; lanbide ezberdinak edota bikotearekin harreman parekideak dituztenak.

Egin diren ikerketa guzti hauek erakusten dute Haur Literaturan aldaketak egon direla; estereotipoekin apurtzen duten eta eredu femenino eta maskulino berriak eskaintzen dituzten liburuak daudela. Hala ere, oraindik estereotipo tradizionaletan oinarritzen diren emakume- zein gizon- ereduak eskaintzen eta sustatzen dituzten zenbait liburu aurkitu ditzakegu. Hau horrela dela frogatzeko, Haur Literaturan emakumearen irudia nolakoa izan den aztertuko dugu hurrengo zatian.

### **3.3. Emakumeen irudia Haur Literaturan:**

*"Lo que conocemos como femenino en el patriarcado  
no sería lo que las mujeres son o han sido,  
sino lo que los hombres han construido para ellas"*

Luce Irigaray

Mugimendu feministei nahiz berdintasunaren aldeko pentsamolde eta ekintzei esker, Haur literaturaren bitartez transmititzen diren gizarteko balio eta rolak bilakaera positiboa izan dutela nabarmena da. Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago HGL-ak beti izan dituela ukiezinak diren eredu itxiak, non klase sozial eta sexu desberdintzea indartu eta bultzatu duten (Barragán Medero, 1989). Ondorioz, historian zehar bezala, emakumeak literaturan ere baztertuak izan dira.

Haur Literaturan agertzen diren emakumeen irudiak aztertu dituzten zenbait ikerketa egin dira, halere kasu honetan, batez ere, Eneko Fernandez Artigasek burututako *Emakumearen irudia euskal haur literaturan modernoan. 1980ko*

*hamarkadako eta gaur egungo egoera* deituriko doktore tesian ateratako datuei erreparatuko diegu (emakumeen irudiaren inguruan egindako azken ikerketa).

Olaziregiren hitzetan (2005) emakumeen irudia sexista izan ohi da (Fernandezek aipatua, 2017: 40). Nahiz eta emakumeak gizartean daukan papera asko aldatu den, ipuinetan azaltzen diren eredu maskulino eta femeninoak gaur egungo errealitatean zaharkiturik dauden estereotipoen inguruan sortzen dira oraindik (Jurado Carmona, 2001). Hortaz, genero femeninoa eta maskulinoa modu desberdinean definitzen dira, ustez bakoitzari dagozkion aukerak, rolak eta erantzukizunak esleituz (Brunet Icart, 2008). Hau horrela, Irastorzak (Fernandezek aipatua, 2017: 38) bere ikerketan adierazi bezala, orokorrean emakumeei paper pasiboak eskaini zaizkie. Batez ere, etxearekin eta familiarekin erlazionatu dira, hau da, espazio pribatuarekin. Aldiz, gizonak, espazio publikoarekin erlazionatzen dira, gertakizunak suertatzen diren eremuan.

Protagonismoari dagokionez, bitxia da, nahiz eta munduko biztanleriaren 51%a emakumeak diren, Haur Literaturan emakumeen irudiaren gabezia egon dela. Colomerrek (1999) eta Cañamaresek (2004) egindako ikerketetan, emakumeek protagonista guztien heren bat osatzen zutela erakutsi zuten eta, Martinek (1998) pertsonaia femeninoen inguruan egindako ikerketan, 1.883 pertsonailetatik 889 gizonak, 388 emakumeak eta 665 gizon-emakume taldea zirela. (Fernandez, 2017: 44). Bestalde, liburuetakako protagonisten sexuaren inguruko ikerketa gehiago egin dira Fernandez lanean ikusi ahal den bezala (2017: 45):

	<b>Xabier Etxaniz</b>	<b>Association Européenne du côté des filles</b>	<b>Teresa Colomer</b>	<b>Princeton-eko Unibertsitateak</b>
<b>Emakumeak</b>	%18,2	%43-45	%29,5	%25
<b>Gizonak</b>	%60,6	%55-57	%62,8	%75
<b>Gizon-emakume</b>	%21,2		%7,7	

Datu hauek aztertuz, ikusi dezakegu emakume protagonisten presentzia gizonena baino urriagoa dela.

Emakume nahiz gizon batek gure gizartean nolakoa izan behar duen markatzen dituzten hainbat eta hainbat estereotipo daude, gure kulturaren hain barneratuak dauden ideiak non arketipo izatera bilakatzen diren (Núñez Gil eta Rebollo Espinosa, 2005). Turinek (1995), Davisek (1994) eta Tomek (2001) genero estereotipo hauek azpimarratzen dituzte: gizonak kontrolatzaileak, adoretsuak, independenteak, arrazionalak, indartsuak, erabaki hartzaileak, apalak, prestuak eta bere buruarengan segurtasuna dutenak dira. Dirua etxera eramaten dute, familia babesten dute eta zuzendaritza-, erantzukizun- eta buruzagitza-postuak dituzte. Emakumeak, aldiz, mendekoak, hauskorak, sentiberak, beldurtiak, ahulak, zalantzatiak eta konplexuak dira. Afektibitatea eta zintzotasun eza emakumeekin erlazionatzen diren ezaugarriak dira. Hauen rola ugalketaren-rola da: seme-alabak, etxea, gaixoak, familiakoak eta komunitatea zaintzeko ardurak dituzte. Ondorioz, lanbideei dagokienez, emakumeen lanbideak mugatuak izaten dira eta gizarte-lanean edo gizarte-hezkuntzan kokatzen dira. Gizonenak, aitzitik, ugariagoak dira, erantzukizun handiagoak eta buruzagitza-postuak izaten dituzte (Fernandez, 2017: 89- 92).

Etxanizek (2001) egindako ikerketa da horren adibide; gizonen kasuan 95 lanbide aurkitzen dira eta emakumeen kasuan 17. Eraitza hauek etxetik kanpoko jarduna gizonena dela adierazi zuten. Gainera, boterea ere gizonen esku dagoela salatu zuen: alkate guztiak gizonak (6), kapitainak (2), gobernadoreak (1), erretorea (1) edo zuzendariordea (1). Colomerrek (1994) ere lanbideen inguruko ikerketa egin zuen. Etxeko lanetan lan egiten duten emakumeak %33,6 direla, aldiz, gizonak %0 agertzen direla azpimarragarria da. Gainera, lanbide kualifikatuak dituzten gizonak %24,3 dira eta %5 emakumeak (Colomer, 1994: 15).

Turinek (1995), Association Européenne du côté des filles (1998) eta Emakundek (2009) haien ikerketetatik ateratako estereotipoei erreparatzea interesgarria litzateke:

<b>Gizonak- Mutilak</b>	<b>Emakumeak- Neskak</b>
Aktiboak/ Ekintzaileak	Pasiboak
Espazio publikoa/ Etxetik kanpo Etxetik kanpo lan egin	Espazio pribatua/ Etxe barruan Etxe barruan lan (zaintza eta etxeko ardurak)
Ikasleak edo lanbide aberatsagoak (prestigio, ardura, funtzio... gehiago)	Etxeko langileak, andereñoak, erizainak, dendariak
Etxetik kanpoko lanei lotutako	Etxe barruko lanei lotutako

objektuak/tresnak: adibidez, maletina	objektuak/tresnak: amantala, erratza, garbitzeko tresnak...
Umeen zaintzaz eta etxeko lanez arduratzea salbuespena izaten da	Zaintza eta etxeko lanak ohikoak dira (garbitu, sukaldatu...)
Betaurrekoak: jakituria adierazle	Betaurrekoak: zaharrak direla adierazteko; jakituria eta edertasuna bateraezinak direla islatzeko ere erabiltzen dira
Egunkaria irakurtzen dute: kanpoko munduko informazioarekin, jakituria eta jakin-minarekin, boterearekin eta modernitatearekin lotzeko	Ipuinak, aldizkariak, nobela arrosak... irakurtzen dituzte; harreman pribatuekin eta sentimenduekin lotzeko
Leihoaren kanpoko aldean	Leihotik begira
Kolorea: urdina	Kolorea: arrosa eta lazoak
Animalia: txakurra (leiala eta etxe kanpoko)	Animalia: katua (mesfidantza adierazle eta etxe barrukoa)
Autonomia	Menpekotasuna
Ausardia	Beldurra
Arrazionalagoak	Sentimentalagoak
Ezaugarri fisikoak: ederrak eta indartsuak	Ezaugarri fisikoak: ederrak, garbiak, apainduak, itsusiak
Kirolariak eta abenturazaleak	Alferrak
Menderatzaileak	Mantsoak

(Fernandez, 2017: 31-32)

Gauzak horrela, Eneko Fernandezek Haur Literaturako emakume eta gizonen irudiak aztertu ditu bere doktore tesian (1980ko hamarkadatik gaur egunera/2009-2014). Bere emaitzen arabera, euskal HGLn emakumearen irudia parekideagoa da 1980ko hamarkadarekin alderatuz. Halere, nahiz eta aurrerapen handiak egin diren, ikerlari honen arabera sexismoak oraindik Haur Literaturan darrai:

Bere ikerketan ondorioztatu zuen emakumeen presentzia geroz eta ugariagoa eta anitzagoa dela (1980ko hamarkadan emakume protagonistak %15,7 ziren, 2013an %32,7a eta liburu saridunetan %57,9a). Baita umeei eredu berri eta anitzagoak eskaintzen zaizkiela (Fernandez, 2017: 201-202).

Aitzitik, sexu bakoitzari esleitutako ezaugarri fisikoen inguruan, emakume ederraren eta gizon indartsuaren estereotipoarekin oraindik ez da apurtu. Nahiz eta mutil indartsuen kopuruak behera egin duen, indarra oraindik gizonen ezaugarritzat hartzen da, edertasuna emakumeen ezaugarri den bezala. Neska itsusien kopuruak behera egin badu ere, neska itsusi gehiago agertzen dira mutil itsusiak baino. Baita, nahiz eta kopuru txikian izan, ahuldadea oraindik emakumearekin lotzen den ezaugarri bat da (op. cit.: 206-213).

Nortasunari dagokionez, emakumeek tradizionalki gizonei esleitutako jarrerak hartu dituzte. Hau horrela, emakume salbatzaile eta autonomo gehiago topa ditzakegu. Baita erabakiak hartzen eta indarkeria erabiltzen duten emakume gehiago. Aldiz, menpekotasunean ez da parekidetasunik aurkitu, izan ere, oraindik menpeko emakume gehiago aurkitzen ditugu (%52) gizonak baino (%26) (op. cit.: 349-350). Izaeraren kasuan, ezaugarri batzuek parekidetasunerantz bilakaera izan duten arren, beste batzuek ez dute izan: emakume ausart eta aktibo gehiago aurkitzen dira. Baita emakume jakintsu gehiago eta pasibo gutxiago, hala ere, gizonekin alderatuz, oraindik ezin daiteke berdintasunez hitz egin. Bestalde, emakume sentiberak, ameslariak eta lasaiak ugaritan agertzen dira, gizonek lehiaren eta zitalkeriaren ezaugarriak hartzen dituzten heinean (op. cit.: 338-339).

Espazioari dagokionez, parekidetasunerantz eboluzionatu duela ematen du, izan ere, espazio pribatuan emakumeak zein gizonak bermatuta daude eta emakumeak espazio publikora pasa dira (op.cit.: 341). Aldiz, lan ordaindu eta kargu boteredun gehienak gizonenak izaten jarraitzen dute; hauek askoz anitzagoak eta prestigiotsuagoak dira (dendaria, musikaria, soldadua, medikua, zientzialaria...), emakumeen lanbideak baino (irakaslea, saltzailea, garbitzailea) (op.cit.: 346-347). Hau horrela, emakume askoz gehiago dira etxeko ardurak (etxeko lanak eta zaintza familiarrak) betetzen dituztenak gizonak baino; 2013ko liburuetan %83a emakumeak dira eta %42a gizonak (op.cit.: 359).

Bestalde, pertsonaia femenino eta maskulinoek betetzen dituzten ekintzei (aisialdia) erreparatzen badiegu, nahiko parekideak direla ondorioztatu daiteke (op. cit.: 359). Bi sexuak agertzen dira lagunekin, ikasten, irakurtzen, etxe barruan/kanpoan jolasten, bidaiatzen, etab. Hala ere, emakume gutxi agertzen dira kirola egiten (op. cit.: 264-275).

Adela Turinek aztertutako sinbologiaren aldetik, ia desagertzeaz dagoela baina oraindik badagoela ondorioztatzen du (op. cit.: 359). Izan ere, geroz eta emakume gehiago agertzen dira egunkari, maletina, kaleko tresna, txakur eta betaurrekoekin (emakume zahar edo itsusiarekin eta gizon jakintsuarekin ez da erlazionatzen). Hala ere, amantala eta etxeko-tresnak emakumeekin lotzen diren sinboloak izaten jarraitzen dute (op.cit.: 254-263). Kolorearen aldetik ere, aurrera pausuak eman dira baina sexismoa ez da erabat gainditu izan ere, nahiz eta emakumeak urdinera hurbildu diren, gizonak arrosarengandik urrun jarraitzen dute (op.cit.: 246-250).

Amaitzeko, etxean gehien nor agertzen den jakiteko ikerketa dugu. Eraitzen arabera, etxean agertzen diren aita eta amen presentzia nahiko parekatua da, nahiz eta oraindik amak etxe barruan gehiago ageri (op.cit.: 277). Bestalde, etxe barruan agertzen diren seme-alaben kopurua orekatua da (op.cit.: 278-279). Beraz, Fernandezek egindako ikerketaren arabera, etxean bi gurasoek eta seme-alabek presentzia garantizatua dute (op.cit.: 359).

Ikerketa honek erakusten digu aurrerapen handiak egin direla, hau da, emakumeen irudiak eboluzioa izan duela eta gaur egungo Haur Literatura (2009-2014), 1980. hamarkadako ipuinekin konparatuz, ez dela hain sexista. Hala ere, honek ez du esan nahi gaur egun oraindik sexismoa aurkitzen ez dugunik, ezta hurrik eman ere. Izan ere, gizartean oraindik erroturik dauden hainbat ezaugarri literaturan islatzen dira (op.cit.: 360-361).

Behin emakumeek Haur Literaturan urte askotan zehar izan duten papera aztertu dugula, gaur egun zein egoeratan gauden eta idazleek HGL-an emakumeen rola zein modutan aurkezten duten aztertzeko momentua iritsi da; rol klasiko eta sexistak mantentzen dituzten edota aldaketa justu, erreal eta berdintasunezko bat erakusten duten.

#### **4. Metodologia:**

Beharrezko informazioa plazaratuta, gaur egun zein egoeratan gauden jakiteko momentua iritsi da. Egungo Haur Literatura generoen aldetik nolako den eta feminismoa benetan haur liburuetara heldu den jakiteko, Haur Literaturaren mundu zabalean murgildu naiz. Horretarako corpus interesgarri bat aztertu dut erantzunak bilatzeko asmoz.

Beraz, esango genuke, ikerketa enpiriko batean oinarrituz, (liburuak behatuz eta irakurriz, eta zuzenean datuak ateraz), gaur egungo haur irakurleek (baita oraindik irakurtzen ez dakitenek ere) zer-nolako emakume- zein gizon-eredu aurkitzen dituzten jakingo dugula. Izan ere, funtsezkoa ikusten dut honakoa ezagutzea, liburuetan transmititzen diren balioak, mezuak, irakaspenak... ezagutzea beharrezkoa ikusten dugun bezala. 2020. urtean gaudela, galdetu behar diogu geure buruari: Zer erakusten diete liburuek txikienei? Zer balio jorratzen dira? Nolakoak dira bertan agertzen diren eredu femeninoak? Eta maskulinoak? Eta ondorioz, nola ikusten dugu helduok errealitatea? Emakume izatea? Gizon izatea? Izan ere, ezin dugu ahaztu, idazleek beren sinesmenak, usteak, ideologiak..., azken finean, haien errealitatea ikusteko modua (eta zentzu askotan guztiona) eramaten dutela paperera eta uste guzti horiek gizarte batean sortuak izan direla. Horregatik esaten dugu Literatura ere gizartearen isla dela. Baina, gizartea aldatzen den heinean aldatzen al da Haur Literatura?

#### **4.1. Irizpideak eta corpusa:**

Zein egoeratan gauden jakiteko, Eibarko Juan San Martin Liburutegira gerturatu naiz eta 40 liburuz osatutako corpusa aztertu dut. Bertan liburuzainari egin beharreko lana azaldu diot eta haren iradokizunak kontuan hartuta, maileguan gehien hartzen diren liburuen artean nireak hartu ditut. Liburuak, noski, zoriz aukeratu ditut, hauetan agertzen diren emakume- zein gizon-ereduak aurretik nolakoak izango diren jakin gabe. Liburu guztiak Literaturaren barruan sartzen dira eta "*bularretik mintzora*" txokotik atera ditut. Txikiengoengan irakurketa sustatzeko asmoz, Galtzagorri elkarteak Tolosako (Gipuzkoa) Haur Liburutegian 2007-2008 urteetan estreinatutako proiektu bat izan zen eta haren helburu nagusia etxean, ikastolan eta liburutegian irakurle-giro bat sortzea zen. Orain arte aukera izan duen liburutegi orok izan du proiektua hedatzeko erantzukizuna eta Eibarren txoko ederra dute prestatuta. Umeen eta edozeinen eskura daude eta hantxe 0-7 urteko umeentzako liburuak aurkitzen

ditugu. Bertan gometxa urdinak (0-4 urte) eta gometxa gorriak (5-7 urte) topatzen ditugu. Nire kasuan, 3-6 urte bitarteko umeentzako liburuak aztertu nahi nituen, 0-3 urte bitarteko ipuin gehienak animaliak, zenbakiak, errutinak... lantzen dituztelako. Baina urteen sailkapena arestian aipatu bezala egina dagoenez, gehienbat gometxa gorriko liburuak eta 3-4 urte tarte horretan sartzeko, gometxa urdina duten beste gutxi batzuk hartu ditut. Hauen artean euskarazko eta erdarazko liburuak aurkituko ditugu. Hau esanda, zoriz hartutako **40 liburuz osatutako corpusa** honakoa da:

#### **0-4 urte:**

- Oxenbury, Helen (1989). *La clase de baile*. Barcelona: Juventud Editorial, S.A.
- Weninger, Brigitte (2012). *Non da mimiki? (Miko)* Donostia: Ttarttalo.
- Murphy, Jill (2016). *Bost minutuko lasaialdia*. Iruñea: Pamiela.
- Dematons, Charlotte (2007). *Goazen!* Donostia: Ttarttalo.
- Lee, Suzy (2008). *La ola*. Albolote: Barbara Fiore Editora.
- Rodari, Gianni (2017). *Ipuinak nahasten*. Iruñea: Pamiela.
- Gonzalez, Xose M. (2018). *Hamaika andere ausart*. Pontevedra: Kalandraka.
- Westera, Bette (2000). *Amonaren etxera noa*. Bilbo: Ibaizabal.

#### **5-7 urte:**

- Pita, Charo (2010). *Amonatxoak*. Iruñea: Txalaparta.
- Ungerer, Tomi (2011). *Zeraldaren erraldoia*. Baiona: Ikar.
- Olaso, Xabier (2011). *Paulen abentura miresgarria*. Bilbo: Aizkorri.
- Bilbao Barruetabeña, Leire (2009). *Garazi gerezi*. Bilbo: Mensajero.
- Alberdi, Uxue (2013). *Txikitzen zaretenean*. Iruñea: Pamiela.
- Bowley, Tim (2008). *Ameliak txakur bat nahi du*. Iruñea: Pamiela.
- Koppens, Judith (2017). *Mila bi etxeetan bizi da*. Donostia: Ttarttalo.
- Browne, Anthony (2014). *Basoan barrena*. Iruñea: Pamiela.
- Ramon, Elisa (2017). *Ez da erraza katagorri*. Iruñea: Pamiela.
- Kerr, Judith (2010). *Meriendatzera etorri zen tigrea*. Iruñea: Pamiela.
- Ormazabal, Joxan (2009). *Zirkua amets*. Iruñea: Pamiela.
- Schnetzer Garcia, Alejandro (2003). *Hondartzako gazteluaren ipuina*. Irun: Alberdania.
- Alberdi, Uxue (2015). *Besarkada*. Donostia: Elkar.
- Olaso, Xabier (2014). *Iker ikerlaria*. Bilbo: Ibaizabal.
- Ballesteros, Xosé (2001). *Osaba Otso*. Pontevedra: Kalandraka.



- Belmontes, Juan Alfonso (2011). *Pinto oilarraren ezteiak*. Iruñea: Txalaparta.
- Papatheodoulou, Antonis (2016). *Azken gutuna*. Iruñea: Pamiela.
- Pita, Charo (2012). *Magia!* Iruñea: Txalaparta.
- Lluch, Enric (2011). *Etxea pintatzen*. Donostia: Erein.
- Santisteban, Karlos (2016). *Txokolatzeko arrainak*. Bilbo: Ibaizabal.
- Blake, Quentin (2016). *Magnolia jauna*. Iruñea: Pamiela.
- Salaberria, Leire (2011). *Euria ari duenean*. Iruñea: Pamiela.
- Amuriza, Miren (2016). *Bainera bete itsaso*. Donostia: Elkar.
- Arratibel, Joxe; Zubizarreta, Patxi (2000). *Sorgina eta emakume ederra*. Donostia: Erein.
- Arratibel, Joxe; Zubizarreta, Patxi (2001). *Txomin ipurdi*. Donostia: Erein.
- Arrieta, Yolanda (2007). *Oinutsik jauregian*. Bilbo: Ibaizabal.
- Sierra, Jordi (2008). *Nire eskola*. Donostia: Erein.
- Zubeldia, Iñaki (2007). *Xirripin fantasmatoxa*. Bilbo: Ibaizabal.
- Van Der Heide, Iris (2007). *Klarion gorria*. Donostia: Tartalo.
- Salaberria, Leire (2014). *Hiltzaileak*. Iruñea: Pamiela.
- Lluch, Enric (2010). *Zakuaren gizona*. Donostia: Erein.
- Arrieta, Yolanda (2009). *Agur, ama!* Bilbo: Ibaizabal.

#### **4.2. Genero analisirako fitxa:**

Corpus honetatik ahalik eta mami gehien ateratzeko, Eneko Fernandez Artigasek egindako tesian erabilitako *genero analisirako fitxa* oinarritu naiz. Berak sortutako fitxa oso aproposa irudi zait emakumearen irudia nola ikusten den jakiteko aski zabala delako, hala ere, aldaketa batzuk egin dizkiot (Ikus fitxa 1. eranskinean). Fitxa bera erabiliko da pertsonaien ekintzetatik, ilustrazioetatik eta testutik informazioa ateratzeko eta hura eskura izanda, helburuak bete eta formulatutako hipotesiak egia ala gezur diren frogatuko dut. Liburuek duten zukua lortzeko, datu objektiboak aterako ditut atal hauetatik:

- **Lehenengo atala:** liburuaren *izenburua*, *egilea*, *ilustratzailea* eta *itzultzailea* agertuko dira.
- **Bigarren atala:** Liburuko *protagonista nagusia(k)* eta *bigarren mailako protagonista(k)* agertuko dira. Bi kasuetan lau aukera izango ditugu: neska (bakarra edo taldea), mutila (bakarra edo taldea), neska-mutila(k) eta zehaztu gabea (animalia edo objektua).

- **Hirugarren atala:** Atal honetan pertsonaien (neska/mutil/zehaztu gabea) *ezaugarri fisikoen* inguruko datuak jasoko dira, konkretuki hauek: indartsuak/ahulak, ederrak/itsusiak, argalak/lodiak.

- **Laugarren atala:** Pertsonaien *nortasunean* eta *izaeran* (ezaugarri psikologikoak) jarriko dugu arreta: autonomoak edo salbatzaileak diren, arazoak konpontzen, erabakiak hartzen dituzten, indarkeria erabiltzen duten, etab. Bestalde, aktiboak edo pasiboak diren, menderatzaileak edo menpekoak, sentiberak edo bihozgogorrak, ausartak edo koldarrak, abenturazaleak edo alferrak, etab.

- **Bosgarren atala:** *Lanbideak* (boteredunak edo boteregabeak, ordainduak edo ordaindugabeak), *espazioak* (espazio publikoa edo espazio pribatua) eta *etxeko lanak* eta *zaintzak* zeinek betetzen dituen aztertuko da.

- **Seigarren atala:** Pertsonaien *ekintzei* erreparatuko zaie; lagunekin jolasten du? Kirola egiten? Irakurtzen? Ikasten? Etxe barruan/kanpoan jolasten? Merkatura doa? Parkera? Hondartzara? Basora? Bidaiatzen du?

- **Zazpigarren atala:** Adela Turinek (1995) mahai gainean jarritako sinbologia sexista aztertzeko asmoz, ilustrazioetan agertzen diren *tresnak/sinboloak* aztertuko dira, hala nola, amantala, egunkaria, betaurrekoak, maletina, etxeko/kaleko tresnak, katua, txakurra... Nork erabiltzen du zer?

- **Zortzigarren atala:** *Koloreak* nola banatzen dira? Urdina, arrosa, kolore argi edo ilunak.

- **Bederatzigarren atala:** Datu hauei esker jakinen dugu *etxeko alorra*, orokorrean, norekin lotzen den: ama, aita, biekin, semea, alaba, amona, aitonarekin...

Bitartean, nire arreta deitu duten *esaldi* eta *irudiak* azalduko ditut (2.eranskina).

Hau guztia azalduta, hauek dira azterketa egiteko jarraitu ditudan *urratsak*:

**Helburuak finkatu** → **Hipotesiak formulatu** → **Genero analisirako fitxa prestatu**  
→ **Liburuak zoriz hartu** → **Testu eta irudietatik datuak atera** → **Fitxa bete** → **Emaitzak lortu.**


## 5. Ikerketaren emaitzak:

Hortaz, 40 liburuko corpusetik datuak atera dituzte Eneko Fernandezek sortutako *genero analisirako fitxa* oinarrituz. Aztertutako Haur Literaturan emakume (neska) eta gizonen (mutil) irudiaren inguruko emaitzak hauek dira (ateratutako datuak eta ehunekoak):

### 5.1. Protagonista nagusia:

	Bakarra	Taldea	Guztira	%
<b>Neska</b>	16	2	18	<b>45</b>
<b>Mutila</b>	14	2	16	<b>40</b>
<b>Biak</b>	2	3	5	<b>12,5</b>
<b>Animaliak</b>	1	0	1	<b>2,5</b>
<b>Objektuak</b>	0	0	0	<b>0</b>
			40	<b>100</b>


Protagonista nagusiak %



Protagonista nagusiei dagokienez, 40 liburuetatik %45ean neska protagonista bakarra bezala agertzen da. Mutil bakarra, aldiz, %40an. Beraz, %85ean protagonista indibiduala aurkitzen dugu. Bestalde, protagonista nagusi bezala bi sexuak batera %12,5ean agertzen dira eta animaliak %2,5ean. Datuak ikusita esan dezakegu gehienbat protagonista indibiduala aurkitzen dugula eta protagonista femenino eta maskulinoen artean parekidetasun handia dagoela. Beraz, formulatutako **lehenengo hipotesiari** dagokionez, esan dezakegu **egiazatu** dela izan ere, protagonista nagusiaren aldetik berdintasun handiagoa ikusi dezakegu. **Bigarren mailako protagonistei** dagokienez, honako datu hauek jaso dira:

	Bakarra	Taldea	Guztira	%
<b>Neska</b>	6	4	10	<b>19,2</b>
<b>Mutila</b>	2	1	3	<b>5,8</b>
<b>Biak</b>	0	22	22	<b>42,3</b>
<b>Animaliak</b>	16	0	16	<b>30,8</b>
<b>Objektuak</b>	1	0	1	<b>1,9</b>
			52	<b>100</b>

Bigarren mailako protagonistak %




Kasu honetan, bigarren mailako protagonista femenino gehiago daude (%19,2) maskulinoak baino (%5,8). Hala ere, %42,3an bi sexuak agertzen dira beraz esan dezakegu nahiko **parekidea** dela. Bestalde %30,8an animaliak agertzen dira.

### 5.2.Ezaugarri fisikoak:

	Indartsua	Ahula	Ederra	Itsusia	Argala	Lodia
<b>Neska</b>	1	3	9	3	8	8
<b>Mutila</b>	8	0	2	1	1	6
<b>Guztira</b>	9	3	11	4	9	14
<b>Neska %</b>	<b>11,1</b>	<b>100</b>	<b>81,8</b>	<b>75</b>	<b>88,9</b>	<b>57,1</b>
<b>Mutila %</b>	<b>88,9</b>	<b>0</b>	<b>18,2</b>	<b>25</b>	<b>11,1</b>	<b>42,9</b>

Ezaugarri fisikoak %



Grafiko honetan argi eta garbi ikusi dezakegu oraindik ezaugarri fisikoei dagokienez sexismoa aurkitzen dugula. Gizonei indarraren ezaugarria esleitzen zaie (%88,9), neskei


edertasunaren ezaugarria esleitzen zaien bitartean (%81,8). Antzaenez, itsusizatea (%75) eta argala egotea (%88,9) emakumeen kontua da gehienbat. Bestalde, aipatzekoa da, nahiz eta emakume ahul gutxi agertzen diren (3 liburutan), gizon ahulik ez dela agertzen (%0). Hau guztia esanda, **bigarren hipotesia egiaztatu** dela ondorioztatu dezakegu, nahiz eta loditasunean desberdintasun handirik ez egon.

### 5.3.Nortasuna eta izaera:

#### Nortasuna:

	Autonomia	Menpekotasuna	Salbatzailea/Heroi	Arazoak gainditu	Erabakiak hartu	Indarkeria erabili
<b>Neska</b>	20	11	5	17	18	0
<b>Mutila</b>	14	3	5	17	24	6
<b>Guztira</b>	34	14	10	34	42	6
<b>Neska %</b>	<b>58,8</b>	<b>78,6</b>	<b>50</b>	<b>50</b>	<b>42,9</b>	<b>0</b>
<b>Mutila %</b>	<b>41,2</b>	<b>21,4</b>	<b>50</b>	<b>50</b>	<b>57,1</b>	<b>100</b>

### Nortasuna %




Nortasunari dagokionez, emakumeek geroz eta autonomia handiagoa dutela ikusi dezakegu hau da, gizonetako parekide daudela. Aldiz, menpeko diren emakume gehiago (%78,6) aurkitzen ditugu

gizonak baino (%21,4). Gainontzeko arloetan parekidetasun handiagoa dagoela antzeman dezakegu (salbatzaile izaten, arazoak gainditzen eta erabakiak hartzen) hala ere, aipatzekoa da, gizonak indarkeria erabiltzen 6 liburutan agertzen direla (%100) eta emakumeak liburu bakar batean ere ez (%0).

### Izaera:

#### Izaera %




Izaeraren kasuan parametro ugari daudenez, kantitateak ehunekoetan bakarrik jarri ditut bisualagoa izateko. Datuei erreparatuz kasu batzuetan parekidetasuna lortu dugula ikusi dezakegu, halere, emakume pasibo gehiago (%73,3) daude

mutilak baino (%26,7). Gainera, gizon menderatzaile gehiago (%75) eta menpeko emakume gehiago (%90,9) aurkitzen ditugu. Orokorrean emakumeak lasaiagoak (%75) eta sentiberagoak (%66,7) dira. Bestaldetik, nahiz eta kasu gutxi agertu, emakume koldar (3 liburutan, %75) eta alfer gehiago (2 liburutan, %100) daude gizonak baino (liburu bakarrean, %25), (bat bera ere ez, %0). Nahiz eta aldea oso handia ez izan, gizon lehiakor gehiago agertzen dira (4 liburutan, %66,7) emakumeak baino (2 liburutan, %33,3). Azkenik, aipatzekoa da gizon bihozgogor (%80) eta jakintsu (%61,5) gehiago aurkitzen ditugula emakume bihozgogor (%20) eta jakintsuak (%38,5) baino. Beraz, **hirugarren hipotesia egiaztatzen** dela ondorioztatu dezakegu, nahiz eta ausardia bi kasuetan parekidea den.

#### 5.4. Lanbideak/ Espazioak/ Etxeko ardurak:

	Boteredunak	Botere eza	Publikoa	Pribatua	Ordainduak	Diru gutxi	Etxeko lanak	Zaintza
Neska	3	17	27	32	6	14	18	27
Mutila	12	8	26	26	10	4	3	14
Guztira	15	25	53	58	16	18	21	41
Neska %	20	68	50,9	55,2	37,5	77,8	85,7	65,9
Mutila %	80	32	49,1	44,8	62,5	22,2	14,3	34,1

Lanbideak/ Espazioak/ Etxeko ardurak %




Lanbideen kasuan gizonak (%80) emakumeek (%20) baino lan botereitsu gehiago dituzte eta aldi berean, botere gutxiko lanbideetan emakume gehiago (%68)

topatzen ditugu gizonekin alderatuz (%32). Ondorioz, soldata urriagoa duten emakumeak (%77,8) gehiago dira gizonak baino (%22,2). Espazioei dagokienez, parekidetasun handiagoa ikusi dezakegu, hala ere, nahiz eta espazio pribatuan gizonak %44,8an agertzen diren, etxeko lanetan bakarrik %14,3ean topatzen ditugu. Beraz, gizonak esparru pribatuan agertzen badira ere, etxeko lanak emakumeek betetzen dituzte (%85,7) oraindik. Zaintza ere emakumeen betebeharrak; %65,9ean eta gizonak %34,1ean. Hau guztia ikusita **laugarren hipotesia ia erabat baieztatzen** dugu, izan ere, nahiz eta espazio pribatuan parekidetasuna egon, oraindik boterean, diruan, etxeko lanetan eta zaintzan sexismoa antzeman dezakegu.

#### 5.5. Ekintzak (aisialdia):

	Lagun.	Kirola	Irakur.	Ikasi	Etxe barru.	Etxe kanp.	Merkatura	Parkera	Baso/Hon dartz	Bidaiatu
Neska	14	6	7	4	11	12	8	4	12	8
Mutila	16	7	7	2	7	13	4	6	14	8
Guztira	30	13	14	6	18	25	12	10	26	16
Neska %	46,7	46,2	50	66,7	61,1	48	66,7	40	46,2	50
Mutila %	53,3	53,8	50	33,3	38,9	52	33,3	60	53,8	50

**Ekintzak (aisialdia) %**




Pertsonaien ekintzei erreparatzen badiegu, orokorrean nahiko parekideak direla ikusi dezakegu. Hala ere aipatzekoa da emakume gehiago aurkitzen ditugula etxean (%61,1) mutilak baino (%38,9). Baita emakume gehiago (%66,7) merkatura joaten mutilak baino (%33,3). Bestalde, nahiz eta kopuru txikian izan, emakume gehiagok ikasten dute (%66,7). Horrela, **bosgarren hipotesia erdipurdi baieztatzen** dugu, izan ere, nahiz eta espero bezala emakume gehiago etxean jolasten agertu, bi sexuek modu parekidean jolasten dute etxetik kanpo. Gainera, bidaiatzeari dagokionez parekidetasuna aurkitzen dugu, ezberdintasun nabariena merkatura joatean dagoelarik.

### 5.6. Sinbologia:

	Amantala	Egunkaria	Betaurrekoak	Maletina	Etxeko tresnak	Kaleko tresnak	Katua	Txakurra
<b>Neska</b>	13	1	10	2	21	15	10	4
<b>Mutila</b>	4	6	11	2	8	21	3	9
<b>Guztira</b>	17	7	21	4	29	36	13	13
<b>Neska %</b>	<b>76,5</b>	<b>14,3</b>	<b>47,6</b>	<b>50</b>	<b>72,4</b>	<b>41,7</b>	<b>76,9</b>	<b>30,8</b>
<b>Mutila %</b>	<b>23,5</b>	<b>85,7</b>	<b>52,4</b>	<b>50</b>	<b>27,6</b>	<b>58,3</b>	<b>23,1</b>	<b>69,2</b>

**Sinbologia %**




Emaitzei erreparatuz oraindik, Adela Turinek Haur Literaturan ikertutako sinbologia sexista aurkitzen dugula ikusi dezakegu beraz,

**6.hipotesia baieztatzen dugu.** Amantala oraindino emakumeekin erlazionatzen den sinbolo bat

da (%76,5) eta egunkaria, aldiz, gizonekin (%85,7). Betaurrekoen kasuan parekidetasuna dago baina sexu bakoitzak zein kasutan eta zergatik eramaten dituen aztertu beharko da. Etxeko tresnekin agertzen den emakume kopurua (%72,4) askoz handiagoa da gizonena (%27,6) baino. Aldiz, kaleko tresnekin parekidetasunerantz eboluzio bat ikusten da. Azkenik, Turinek azaldu bezala, emakumeak gehiagotan erlazionatzen dira katuarekin (%76,9) gizonak baino (%23,1). Txakurraren kasuan, badago txakurra emakumearekin erlazionatzeko joera bat (%30,8), hala ere, nagusiki gizon baten alboan agertzen den animalia da (%69,2).

### 5.7. Kolorea:

	Arrosa	Urdina	Argiak	Ilunak
<b>Neska</b>	23	25	23	10
<b>Mutila</b>	4	26	15	13
<b>Guztira</b>	27	51	38	23
<b>Neska %</b>	85,2	49	60,5	43,5
<b>Mutila %</b>	14,8	51	39,5	56,5




Emaitzen arabera, oraindik ez da koloreen bereizketa sexista gainditu. Nahiz eta emakumeak urdinez jantzita agertu edo kolore urdinarekin lotzen diren (%49), gizona eta arrosa elkartzea ez dago normalizatua (%14,8), emakumeak arrosarekin 23


liburutan aurkezten direlarik. Bestalde, ilustrazioetan emakumeak kolore argiago (%60,5) batzuekin eta gizonak kolore ilunago batzuekin (%56,5) agertzeko joera bat dago. Hortaz, **7.hipotesia egiaztatzen** dela esan dezakegu.



### 5.8. Nor agertzen da gehien etxean?



Nor agertzen da gehiago etxean? %



Datu hauen arabera, etxean gehien agertzen direnak seme-alabak eta ama dira. Hala ere, gurasoak edo seme-alabak ez diren bestelako pertsonaiak ere kontuan hartuko ditugu. Hala, *bestelako pertsonaietatik* 12 emakumeak dira eta 6 gizonak. Emakume guztiak eta gizon guztiak batuz gero, 41 emakume eta 21 gizon agertu dira etxean. Beraz, **8.hipotesiak iragarri bezala, emakumeak gehiagotan agertzen dira etxean gizonak baino.**

## 6. Ondorioak:

Egindako ikerketaren emaitzak ikusita, esan dezakegu gaur egun oraindik Haur Literaturan emakumeen irudi sexista transmititzen dela, izan ere, nahiz eta Fernandezek (2017) adierazi bezala arlo batzuk aldatzen ari diren, begi bistakoa da oraindik ez dela emakumeen irudi erreal eta parekide bat erakusten.

I.Hipotesia, “protagonista nagusi eta orokorren aldetik parekidetasun handiagoa egongo da”, egiaztatu dela frogatu dugu, izan ere, protagonista nagusi femenino gehiago aurkitu dira (Etxanizen, Association Européenne du côté des filles, Colomerren eta Princetown-eko Unibertsitatearen emaitzetan ez bezala). Beraz, protagonismoaren aldetik eboluzioa egon dela esan dezakegu, Enekok bere ikerketan adierazi bezala. 2.mailako protagonisten aldetik ere parekidetasuna dagoela ondorioztatu dezakegu, hain zuzen ere, biak liburuen %42,3an agertzen direlako.

II.Hipotesia ere baieztatu dugu izan ere, “oraindik sexu bakoitzari ezaugarri fisiko sexistak esleitzen zaizkie”. Fernandezek (2017) ondorioztatu bezala, oraindik ez da emakume ederraren eta gizon indartsuaren estereotipoarekin apurto. Nire ikerketan berdin pasatzen da; gizon indartsuak %88,9 eta emakume ederrak %81,8. Emakume itsusi gehiago (%75) daude gizonak baino (%25) eta nahiz eta kantitate txikian izan, emakume ahulak (3 liburutan) ere gizon ahulak ikustea baino ohikoagoa da (%0). Beraz, ezaugarri hauetan behintzat, gauzek berdin jarraitzen dutela ondorioztatu dezakegu. Bestalde, argaltasuna emakumeekin erlazionatzen den ezaugarria da oraindik (%88,9).

III.Hipotesiari dagokionez, “orokorrean izaera eta nortasunaren aldetik parekidetasun handiagoa egongo da, hala ere, menpeko, pasibo eta sentibera diren emakume gehiago eta ausartak, lehiakorak eta indarkeria erabiltzen duten gizon gehiago agertuko dira”, baieztatzen dela esan dugu, nahiz eta ausardia bi kasuetan parekidea izan.

Nortasunaren aldetik, Fernandezek (2017) ondorioztatu bezala, parekidetasun handiagoa ikusi dezakegu, izan ere, emakumeek geroz eta autonomia gehiago dute, salbatzaileak dira, arazoak gainditzen dituzte eta erabakiak hartzen. Hala ere, berak indarkeria erabiltzen duten emakumeak aurkitu dituen heinean, nire ikerketan gizonak bakarrik agertzen dira indarkeria erabiltzen (%100; 6 liburutan). Azkenik,

Fernandezek (2017) ondorioztatu bezala, menpekotasunean dauden emakume gehiago daude (%78,6) gizonak baino (%21,4). Gainera, desparekotasuna areagotu egin da; %52,6tik %78,6ra.

Izaeraren kasuan oraindik sexismoa aurkitzen dugu. Izan ere, nahiz eta emakume aktibo eta ausart gehiago aurkitzen ditugun (Fernandezen ikerketan bezala), emakume pasiboak areagoak dira (%73,3) mutilak baino (%26,7). Aldiz, Fernandezek (2017) liburuetan emakume pasiboen kopuruak behera egin du nahiz eta gizonekiko parekidea ez izan. Berdin gertatzen da jakituriarekin. Egileak adierazi bezala (2017), geroz eta emakume jakintsu gehiago daude, nahiz eta berdintasunaz ezin den hitz egin. Hortaz, gaur egun oraindik ezin dugu esan berdintasuna dagoenik, nire ikerketan emakume pasiboen kopurua handiagoa delako (%73,3) eta gizon jakintsuen kopurua handiagoa delako (%61,5). Bestetik, datu esanguratsua da, gizon menderatzaile gehiago (%75) eta, ostera, menpeko emakume gehiago (%90,9) aurkitzen ditugula. Fernandezek (2017) ikerketan ez ditugu emaitza hauek aurkitzen (parekideagoa dela ondorioztatzen du) beraz, atzera pausu bat egon da edo, sinpleki, beti izan da horrela baina Fernandezek liburuetan ez zen horrenbeste nabaritzen? Azkenik, honek aztertu bezala (2017), emakume sentiberak (%66,7) eta lasaiak gehiago (%75) aurkitzen ditugu. Aldiz, ameslari izatea jada ez da emakumeekin soilik erlazionatzen den ezaugarri bat (erabateko parekidetasuna dago honetan). Oraindik gizon bihozgogorra edo zitala (%80) eta gizon lehiakorra (%66,7) gailentzen dira.

IV. Hipotesia, "oraindik sexismoa aurkituko dugu: gizon gehiagok izango dute boteredun lanbide bat eta ondorioz, hobeto ordaindutako lanbidea. Espazio pribatua eta etxeko lanetan emakume gehiago agertuko dira" baieztatzen da, nahiz eta espazio pribatua bi sexuak berdintsu agertu. Fernandezek (2017) adierazi bezala espazioari dagokionez eboluzioa egon da eta jada emakumeak espazio publikoan agertzen dira. Hala ere, nahiz eta gizonak espazio pribatua agertu (%44,8), etxeko lanetan bakarrik %14,3ean topatzen ditugu beraz, Colomerrek (1994) eta Fernandezek (2017) ikertu bezala, oraindik emakumeak etxeko lanez arduratzen direnak dira (%85,7). Zaintzaren aldetik ere ez da eboluziorik antzeman; gehienbat emakumeak zaintzen dituzte besteak (%65,9). Lanbideei dagokienez, Etxanizek (1994), Colomerrek (1994) eta Fernandezek (2017) esan bezala, nahiz eta emakumeak lanean ageri, oraindik gizonek lan ordaindu (%62,5) eta kargu boteredun gehiago (%80) dituzte. Gainera hauek, Fernandezek (2017) ikertu moduan, askoz anitzagoak eta prestigiotsuagoak dira (polizia, aurkezlea, irakaslea, saltzailea, ikerlaria, asmatzailea, postaria, harakina, kapitaina, erregea, medikua, alkatea, suhiltzailea, astronauta, ostatuko/jauregiko nagusia...) emakumeen lanbideak baino

(irakaslea, saltzailea, nekazaria, sukaldaria, erizaina, neskamea, zerbitzaria, etxeko andrea...). Beraz, ezin dezakegu esan eboluzioa egon denik oraindik boterean, diruan, etxeko lanetan eta zaintzan sexismoa oso nabaria delako.

V. Hipotesia, "orokorrean parekidetasuna egongo da, halere, etxe barruan jolasten duten emakume gehiago eta, aldiz, etxe kanpoan jolasten duten gizon gehiago egongo dira. Gizonek gehiago bidaiatuko dute" erdipurdi baieztatzen da izan ere, nahiz eta etxean jolasten duten emakume gehiago agertu (%61,1), etxetik kanpoko jolasa parekidea da bi sexuetan. Gainera, emakumeek gizonek adina bidaiatzen dutela ikusten dugu beraz, zentzu honetan, eboluzioa egon dela esan dezakegu. Bestetik, kirola egiten duten emakume gehiago aurkitu ditzakegu (%46,2) hortaz, honetan ere eboluzioa egon da, Fernandezek (2017) bere ikerketan kirola egiten zuten emakume gutxi aurkitu baitzituen. Hau horrela, ekintzetan (aisialdian) emakumeek askatasuna lortu dutela ondorioztatu dezakegu (lagunekin egon, ikasi, irakurri, bidaiatu...), hala eta guztiz ere, emakumeak izaten dira merkatura gehiago joaten direnak (%66,7); berriz ere zaintzarekin edo etxeko lanekin zerikusi handia duen ekintza delarik.

VI. Hipotesia baieztatuz, "oraindik sinbologia sexista aurkitzen dugu" liburuetan. Fernandezek (2017) amantala eta etxeko-tresnak izan ezik (emakumeen sinboloak), gainontzeko sinboloak (maletina, egunkaria, betaurrekoak, katua, txakurra...) parekideagoak direla ondorioztatzen du. Aldiz, nire emaitzek oraindik sinbologia sexista aurkitzen dugula erakusten digute. Hala, amantala (%76,5) eta etxeko-tresnetan (%72,4) ez da eboluziorik ikusi oraindik emakumeekin erlazioan jartzen diren sinboloak direlako. Ostera, maletinaren (%50), kaleko tresnen (%41,7) eta betaurrekoen (%47,6) erabilera sexismoa gutxitu dela esan dezakegu. Alabaina, aipatzekoa da betaurrekoekin agertzen diren emakume gehienak zaharrak direla, gizonen kasuan betaurrekoak daramaten pertsonaiak askotarikoak diren heinean (zaharrak, irakasleak, aitak, umeak...). Egunkariaren kasuan, Fernandezek (2017) jada modu parekidean erabiltzen dela ondorioztatzen duen arren, nik ikertutako liburuetan ez da horrela, izan ere, egunkaria gehiagotan agertzen da gizonen esku (%85,7) emakumeen eskuetan baino (%14,3). Beraz, egoera sexista ez da gainditu. Azkenik, oraindik animalien erabilera sexista dagoela aipatzekoa da. Fernandezek (2017) esandakoaren arabera, katu eta txakurren erabilera estereotipatua gainditu da baina nire emaitzen arabera, nahiz eta emakumeak txakurrekin erlazioatzeko

joera bat dagoen (%30,8), emakume batek maskota bat daukanean gehienbat katuarekin azaltzen da (%76,9).

Koloreen inguruko VII. Hipotesia baieztatzen da. Fernandezek (2017) adierazi bezala, aurrera pausuak eman dira emakumeak urdinera hurbildu direlako (%49) baina, aldi berean, sexismoa antzematen da gizonak arrosarengandik urrun jarraitzen dutelako (%14,8). Koloreen erabilera hau ez da aldatu eta oraindik emakumeak arrosarekin erlazionatzen dira gehienbat (23 liburutan, %85,2). Bestetik, ilustrazioei erreparatuz, aipatzekoa da gizonak askotan kolore bero eta ilunagoekin koloreztatzen direla (indarra, misterioa, boterea, okerkeria) eta emakumeak, aldiz, kolore argiekin (goxotasuna, leuntasuna, fintasuna).

Amaitzeko, azkenengo hipotesia (VIII) baieztatu dugu, izan ere, uste bezala, "emakume gehiago agertzen dira etxean gizonak baino". Fernandezek (2017) ondorioztatu bezala, aita eta amaren presentzia bermatua dago etxean hala ere, amak gehiagotan ageri dira (14 aldiz. Aitak berriz, 9). Seme-alaben kasuan parekideagoa da (15 alaba eta 12 seme). Kopuru hauei *bestelako pertsonaien* kopuruak gehitzen badizkiegu, 41 emakume eta 21 gizon aurkitzen ditugu beraz, nahiz eta bi gurasoen eta seme-alaben presentzia bermatua egon, etxean gehien agertzen direnak emakumeak dira.

Hau guztia esanda, gaur egun umeez oraindik Haur Literaturaren bitartez estereotipo femenino eta maskulinoak jasotzen dituztela argi dago. Nahiz eta aurrerapenak egon diren eta kasu batzuetan eredu femenino ezberdinak igortzen diren, sexismoa ez da desagertu. Honakoa ez da horren arraroa, gure gizartean pentsamendu sexista gailentzen dela kontuan hartuta.

Nire emaitzek eta Eneko Fernandezenek beti bat egiten ez dutela ikusi dugu, hau da, nahiz eta berak arlo batzuetan parekidetasun handiagoa dagoela ondorioztatu duen, nik oraindik sexismoa aurkitzen dugula ondorioztatu dut. Berak 80.hamarkadatik 2014 urterainoko liburuak aztertu dituela (normala da berrikuntza gehiago sumatzea) eta corpus zabalagoa ikertu duela kontuan hartu beharra dago. Agian nik liburu gehiago ikertuko banitu emaitzak parekoagoak izango lirateke.

Nahiz eta egoera hau kezkarria izan, emakumeen irudiaren inguruan aldaketa batzuk antzeman daitezke hala, geroz eta protagonista nagusi femenino gehiago

aurkitzen ditugu; hauek autonomoak, ausartak, aktiboak, abenturazaleak, erabaki hartzaileak, salbatzaileak dira eta arazoak gainditzeko dituzte. Geroz eta emakume gehiago aurkitzen ditugu espazio publikoan eta ekintza ezberdinak betetzen dituzte (kirola, lagunak, irakurketa, bidaiak, etab.). Bestalde tradizionalki gizonekin erlazioan jarri diren sinbolo batzuk emakumeenak ere izatera pasa dira, adibidez, maletina eta betaurrekoak. Eta koloreen erabileran behintzat aurrera pausu bat eman dela ikusi dugu emakumeak arrosarekin ez ezik, urdinarekin erlazionatzen direlako.

Hala ere, emaitza negatiboek pisu handiagoa dute: emakumeetan oraindik gizarte patriarkalak sortutako edertasunaren kanonak bete behar dituztenaren presioa existitzen da hau da, ederrak, finak eta argalak izatea. Gainera gizonak "indartsuak" diren heinean, eredu hauek txikienei emakumeak ahulagoak direla erakusten diete. Osera horrelako liburuek emakumeoi pasiboak, sentiberak eta lasaiak izaten eta gizonen menpe gaudela erakusten digute. Hau gutxi balitz, gizonen lan-postu boteretsuagoak eta soldata duinagoak dituzten bitartean, emakumeei etxeko lanen eta besteak zaintzearen ardura eskegitzen zaie oraindik. Hau horrela dela bermatzeko, haur liburuetan emakumeak amantalarekin edo etxeko tresnekin irudikatzen dituzte maiz. Baita etxekoa eta mesfidatia den animaliarekin: katuarekin. Gainera, nahiz eta emakumeak urdinera hurbildu, ez dugu "printzesa arrosaren" ideiarekin apurtu. Honekin guztiarekin ondorioztatu dezakegu aldaketak egon direla baina tamalez, ezin dugu esan liburuetan feminismoa ikusi daitekeenik. Oraindik bide luzea dugu aurretik umeei bidezko ereduak eskaintzeko, batez ere neskei.

Garaia da emakumeoi merezi dugun eta izatez gureak diren eskubideak, espazioak eta askatasunak emateko. Bada garaia haur literatura feminista ez ezik, hezkuntza feminista eskaintzeko eta horretan guztiok batera lan egiteko. Bada garaia Haur Literaturak eskaintzen dituen emakumeen irudien inguruan hausnartzeko, pentsamendu kritikoa izateko eta emakumeen irudi errealak eskaintzen dituzten haur liburu feministen alde egiteko (ikerketa honen bidez ikusi dezakegu oraindik ez dela horrelako liburuak hautatzeko apustua egiten). Konturatu behar gara gaur egun jada edozerrek ez duela balio; emakume gaituak, burujabeak, indartsuak, adimentsuak eta inperfektuak garela, ez gizonen beharrei men egiten dieten altzariak. Eta pentsamendu hau aldatzeko, feminismoa behar-beharrezkoa dugu, ume batek aske izateko eta nahi duena izateko beharra eta eskubidea duen moduan.

## 7. Hobekuntza proposamenak:

Zalantzarik gabe ikerketa lan hau egitea oso interesgarria eta aberatsa izan da niretzat. Etorkizuneko irakasle bezala, Haur Literatura erabiltzea funtsezkoa iruditzen zait baina baita, honetan agertzen diren ereduak lehenik aztertzea. Oraingoan hau egiteko aukera izan dut eta nahiz eta emaitzak desio bezain positiboak ez diren, prest nago, hemendik aurrera are gehiago, Haur Literatura kritikotasunez eta genero ikuspegitik aztertzeko.

Egungo haurrentzako liburuak nolakoak diren aztertu dut hala ere, corpus zabalago bat aztertzea ongi legoke emaitza sakonagoak ateratzeko. Bestalde, haur literatura feminista aztertzeko gogoarekin gelditu naiz. Baina Covid-19 birusa dela eta, liburuak eskuratzeko aukerak eskasak izan dira. Eibarko liburutegian liburu feministen eskaintza oso urria da eta ezinezkoa izan da hauek aztertzea. Hurrengo batean haur liburu feministak kontuan hartzea eta gainontzeko liburuekin konparatuz, zein ezberdintasun topatzen ditugun ikustea oso interesgarria izango litzateke.

Ikusi bezala, *genero analisirako fitxa*n ikertutako ezaugarriek gaur egungo haur literatura nolakoa den jakiteko aukera eskaini didate hala ere, ikerketa sakonago bat egiteko asmoz, ezaugarri gehiago analizatzea kontuan hartzeko gauza da.

Azkenik, liburuak eskuratzeko aukera izanda, gaur egungo hau da, 2020. urteko Haur Literatura ikertzea apustu ona izango litzateke orainaldian sortzen den literatura nolakoa den jakiteko. Nik hartutako liburuak gaur egungoak direla esan dezakegu umeez egunero liburutegian eskura dituzten liburuak direlako eta gehiengoak nahiko berriak direlako baina hala ere, ez dira urte honetan sortutakoak. Hortaz, hemendik aurrera sortzen den Haur Literatura ikertzeke dagoela jakinda, honek nola eboluzionatzen duen eta emakumeak nola aurkezten diren jakiteko ikerketak egiten jarraitzea garrantzitsua izango da.

## 8. Bibliografía:

- Aguilar Ródenas, C. (2008). *Lectura, género, feminismo y LIJ*. Castelló, Universitat Jaume I.
- Baños Fernández, M<sup>a</sup> C. (2015). *El rol de la mujer en los cuentos*. Granada, Universidad de Granada.
- Barragán Medero, F. (1989). Conocimiento social, sexismo y literatura infantil. *Revista CLIJ*, 11, 8-12 orr.
- Brunet Icart, I. (2008). La perspectiva de género. *Barataria. Revista Castellano-Manchega de Ciencias Sociales*, 9, 15-36 orr.
- Cañamares Torrijos, C. (2004). Algunos roles sexistas en los álbumes ilustrados infantiles: ¿Un nuevo sexismo?. In *Valores y lectura: Estudios multidisciplinares* (147-172 orr.). Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla- La Mancha.
- Colomer, T (1994). A favor de las niñas. El sexismo en la literatura infantil. *Revista CLIJ*, 57, 7-24 orr.
- Colomer, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madrid: Síntesis.
- Cruz Díaz, M<sup>a</sup> R. (2004). Hacia la igualdad de las mujeres: De la Tradición a la Coeducación. *Revista de Educación*, 6, 97-109 orr.
- Davies, B. (1994). *Sapos y culebras y cuentos feministas: Los niños de preescolar y el género*. Madrid: Cátedra.
- Del Olmo Campillo, G. (2016). Crítica radical feminista a la cultura. *Oxímora Revista internacional de ética y política*, 8, 63-74 orr.
- Emakunde (2009). *Cuentos infantiles y roles de género*. Gasteiz: Emakunde.
- Etxaniz, X. (1999). Líneas de investigación en la literatura infantil y juvenil. *Revista de Psicodidáctica*, 185 (8), 5-16 orr.



- Etxaniz, X. (2001). Ideologia haur literaturan: emakumearen irudia gure haur eta gazte literaturan. *Egan*, 1-2, 137-158 orr.
  
- Etxaniz, X. (2004). La ideología en la literatura infantil y juvenil. *Cauce. Revista de Filología y su Didáctica*, 27, 83-96 orr.
  
- Fernández Artigas, E. (2017). *Emakumearen irudia euskal haur literatura modernoan. 1980ko hamarkadako eta gaur egungo egoera*. Bilbo, UPV/EHU.
  
- Gabiria, J. (2009). Haur literaturako rolak eta gizarte eredu berriak. *Emakunde*, 75, 12-15 orr.
  
- Gabiria, J. (2014). Haur literatura eta sexu rolak. *GAUR* 8, 385, 17-22 orr.
  
- Gual de Torrella Bennasar, L. (2018). *Feminismo y percepción de la desigualdad de género y económica*. Granada, Universidad de Granada.
  
- Irastorza, T. (1984). Emakumea eta literatura I. eta II. 2015eko irailaren 5ean lortua hemendik: <http://andima.armiarma.eus/ttut/ttut0306.htm>
  
- Jurado Carmona, C. (2001). Las diferencias de género en la Literatura Infantil y Juvenil. In *La Educación de las Mujeres: Nuevas Perspectivas*, Sevilla: Universidad de Sevilla. Secretariado de Publicaciones (195-199).
  
- L'association européenne Du côté des filles, (1998a). *¿Qué ven los niños en los libros de imágenes? Respuestas sobre los estereotipos*. París: Du côté des filles.
  
- L'association européenne Du côté des filles, (1998b). *¿Qué modelos para las niñas? Una investigación sobre los libros ilustrados*. París: Du côté des filles.
  
- León Rodríguez, M. E. (2008). Ética feminista y feminismo de la igualdad. *Revista Espiga*, 16 eta 17, 79-88 orr.
  
- Martín, E. (1998). *Euskal haurtzaroaren asmakuntza 1976-1990 urte bitarteko ipuingintzan isladatu denez* (Argitaratu gabeko tesia). EHU.

- Martínez, J. (2013). Emakumeen kontrako biolentzia sinbolikoa euskal haur ipuinetan. *Inguruak: soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria*, 55, 1328-1353 orr.
- Martínez, J. (2013). La construcción de los espacios públicos y privados en la literatura infantil vasca. *Investigaciones feministas*, 3, 99-115 orr.
- Molina Barras, N. (2015). *Una aproximación crítica al modelo amoroso hegemónico*. Pamplona, Universidad pública de Navarra.
- Núñez Gil, M. eta Rebollo Espinosa, M<sup>a</sup> J. (2005). *La horma cede: evolución de los modelos educativos femeninos en la prensa española desarrollista* (Flecha Garcia, C., Núñez Gil, M. eta Rebollo Espinosa M<sup>a</sup> J. ed.). *Mujeres y educación: saberes, prácticas y discursos en la historia*. Sevilla: Miño eta Dávila. Diputación de Sevilla, 247-259 orr.
- Olaziregi, M.J. (2005). Evolución y actualidad de la literatura infantil y juvenil en lengua vasca. *Lapurdum. Euskal Ikerketen Aldizkaria*, 10, 137-152 orr.
- Ortiz Txabarri, I. (2015). *La transmisión de los roles de género en los cuentos infantiles*. Bilbo: UPV/EHU.
- Quesada Chamorro, A. I. (2012). *Cuentos infantiles como arma coeducativa*. Granada, Universidad de Granada.
- Reverter Bañón, S. (2010). La deriva teórica del feminismo. *Daimón. Revista internacional de filosofía*, 3, 153-162 orr.
- Tomé, A. (2001). La construcción de las identidades masculinas y femeninas en la escuela. Hemen: N. Blanco (edit.). *Educación en femenino y en masculino* (87-88 orr.). Madril: Akal.
- Turín, A. (1995). *Los cuentos siguen contando. Algunas reflexiones sobre los estereotipos*. Madril: Horas y Horas.

## 9. Eranskinak:

### 1.eranskina:

- *Genero analisirako fitxa:*

Izenburua:

Egilea/Egileak:

Ilustratzailea:

Itzultzailea:

- PROTAGONISTA NAGUSIA:

	BAKARRA	TALDEA
NESKA		
MUTILA		
NESKA-MUTILA		

	ANIMALIA	OBJEKTUA
ZEHAZTU GABEA		

- BIGARREN MAILAKO PROTAGONISTAK:

	BAKARRA	TALDEA
NESKA		
MUTILA		
NESKA-MUTILA		

	ANIMALIA	OBJEKTUA
ZEHAZTU GABEA		

- EZAUGARRI FISIKOAK:

	NESKA	MUTILA
INDARTSUAK		
AHULAK		
EDERRAK		
ITSUSIAK		
ARGALAK		
LODIAK		

- NORTASUNA:

	NESKA	MUTILA
AUTONOMIA		
MENPEKOTASUNA		
SALBATZAILEA/HEROIA		
ARAZOAK GAINDITZEN DITU		
ERABAKI HARTZAILEA DA		
INDARKERIAREN ERABILERA		

- IZAERA:

	NESKA	MUTILA
AKTIBOAK		
PASIBOAK		
MENDERATZAILEAK		
MENPEKOAK		
LEHIAKORRAK		
BAREAK/LASAIK		
ADORETSUAK/AUSARTAK		
KOLDARRAK		
SENTIBERAK		
BIHOZGOGORRAK		
IREKIAK		
ABENTURAZALEAK		
ALFERRAK		
JAKINTSUAK		
AMESLARIAK		

- LANBIDEAK, ESPAZIOA ETA ETXEKO ARDURAK:

	NESKA	MUTILA
BOTEREDUNAK (lanbidea)		
BOTERE EZA EDO URRIA (lanbidea)		
ESPAZIO PUBLIKOA (kalea, gizartea)		
ESPAZIO PRIBATUA (etxea)		
LAN ORDAINDUAK		
SOLDATA GABE EDO GUTXIKO LANAK		
ETXEKO LANAK		
ZAINTZA		

- EKINTZAK (Aisialdia):

	NESKA	MUTILA
LAGUNEKIN EGON/JOLASTU		
KIROLA EGIN		
IRAKURRI		
IKASI		
ETXE BARRUAN JOLASTU		
ETXE KANPOAN JOLASTU		
MERKATURA JOAN		
PARKERA JOAN		
BASO/HONDARTZARA JOAN		
BIDAIATU		

- SINBOLOGIA:

	NESKA	MUTILA
AMANTALA		
EGUNKARIA		
BETAURREKOAK		

<b>MALETINA</b>		
<b>ETXEKO TRESNEKIN</b>		
<b>KALEKO TRESNEKIN</b>		
<b>KATUA</b>		
<b>TXAKURRA</b>		

- **KOLOREA:**

	<b>NESKA</b>	<b>MUTILA</b>
<b>ARROSA</b>		
<b>URDINA</b>		
<b>KOLORE ARGIAK</b>		
<b>KOLORE ILUNAK</b>		

- **ETXEAN NOR AGERTZEN DA GEHIEN?**

	<b>AMA</b>	<b>AITA</b>	<b>BIAK</b>	<b>ALABA</b>	<b>SEMEA</b>	<b>BESTEAK</b>
<b>NOR AGERI DA ETXEAN?</b>						

- **ESALDI DEIGARRIAK:**

- **IRUDI DEIGARRIAK:**

## 2.eranskina:

- Irudi deigarriak (oraindik sexismoa dagoela zihurtatzen dutenak):


### - Emakume ederra/ Gizon indartsua:



*Oinutsik jauregian*



*Sorgina eta emakume ederra*



*Hiltzaileak*




*Zakuaren gizona*

- Indarkeriaren erabilera:



*Zeraldaren erraldoia*



*Zeraldaren erraldoia*




*Pinto oilarraren ezteiak*

**- Gizon menderatzailea/ Menpeko emakumea:**



*Sorgina eta emakume ederra*



*Hiltzaileak*



Sofiaren amatxok esan zuen:  
"Zer egingo dut? Ez dago ezer aitaxoren afarirako;  
tigreak dena jan du!"


*Meriendatzera etorri zen tigrea*



**- Emakume sentibera:**




*Basoan barrena*




*Pinto oilarraren ezteiak*

**- Lanbide boteretsuak (gizonak):**



*Hiltzaileak*



*Ipuinak nahasten*



*Txomin ipurdi*

**- Botere gutxiko lanbideak (emakumeak):**



*Nire eskola*



*Pinto oilarraren ezteiak*


- Etxeko lanak/ Zaintza (emakumeak):



*Osaba otso*



*Amonatxoak*




*Pinto oilarraren ezteiak*



*Garazi gerezi*



*Non da mimiki? (Miko)*



*Zeraldaren erraldoia*




*Amonaren etxera noa*

**- Merkatura joaten (emakumeak):**



*Meriendatzera etorri zen tigrea*

**- Amantala/ Etxeko tresnak/ Katua (emakumeak):**



Amaren etxean ere oso gustura nago.  
Katua zain daukat, eta ama ere bai, poz-pezik.  
Zein ederki! Berriz ere hemen!

Kaixo, amatxo maitea.  
Kaixo, amaren etxea.  
Kaixo, katu laztana!

*Mila bi etxeetan bizi da*



*Amonatxoak*



*Pinto oilarraren ezteiak*



Oinutsik jauregian



Zeraldaren erraldoia

- Gizonak txakur eta egunkariarekin:



Mila bi etxeetan bizi da



Ameliak txakur bat nahi du



Ipuinak nahasten



*Paulen abentura miresgarria*

- Neskak arrosaz/ Mutilak urdinez:



*Txikitzen zaretenean*



*Xirripin fantasmatoxa*



*Non da mimiki? (Miko)*

• **Esaldi deigarriak (oraindik sexismoa dagoela zihurtatzen dutenak):**

➤ **Ezaugarri fisikoen inguruan:**

- “Ven, que te recogeré el pelo igual que a las demás” (*La clase de baile*).
- “Zerelda neskato ederra bilakatu zen; haur-jaleak bizar ziztakorra ebaki zuen eta maitemindu ziren. Ezkondu, egunerokotasun ezitia eraman eta haur parrasta bat munduratu zuten. Pentsa dezakegu beraz azkeneraino bizitza zoriontsua izan zutela” (*Zeraldaren erraldoia*).
- “Neskatilak, ordea, hirugarren bueltarako zapatak erantzi, eta esan zuen: -Min egiten didate. Printzesaren gurasoak aho bete hortz geratu ziren. - Zer egingo dugu orain?- esaten zioten elkarri. - Oinetako horiek gabe, nola jakingo du jendeak alaba dela benetako printzesa, eta ez beste bat?” (*Oinutsik jauregian*).
- “Hain ederra izan eta ni iturrira bidaltzen! - Baina nagusiak iturrira bidali zuen berriro neskame harrotua, oraingoan pegar batekin” (*Sorgina eta emakume ederra*).
- “Hau da nire andereñoa. Polita dela!” (*Nire eskola*).

➤ **Nortasuna/ Izaeraren inguruan:**

- “Xendra hegiko arroketan gorderik, haur-jalea neskaxaren aiduru zegoen, jauzi egiteko prest: - Hara azkenean ene askaria! - zioen marmarka” (*Zeraldaren erraldoia*).
- “Oheratzean, amak ipuin bat kontatu dit. Amatek ipuin bat irakurtzen didanean, bat-batean dena ahaztu egiten dut. Aitarekin ez da gauza bera. Abesti xelebreak kantatzen ditu” (*Mila bi etxeetan bizi da*).
- “Sofiaren aitak esan zuen: - Badakit zer egingo dugun! Oso ideia on bat daukat. Berokiak hartuko ditugu eta jatetxe batera joango gara” (*Meriendatzera etorri zen tigre*).
- “Mutilek begirada gaiztoa egin zioten elkarri eta lanean hasi ziren. Uste osoa zuten: - Nirea izango da gaztelurik ederrena!” (*Hondartzako gazteluaren ipuina*).
- “Osaba otsok Karmeleri: - Zoaz hemendik, baina ez ahantz: gau honetan bertan jango zaitut!” (*Osaba Otsa*).
- “Juliak azeriari: - Baina, azeritxo, Pinto oilarrak maite nau, abestu egiten dit eta gauza bat baino ez dit eskatzen, gogoan eraman dezadala paseatzerakoan” (*Pinto oilarraren ezteiak*).
- “Pinto oilarrak andretzat hartu nahi du amantal zuriz janzten den esneketaria. Une ederra iritsi zaigu eta ikusi egin nahi dugu, batak besteari egingo dion oparia. Oilarrak



kantatzen duenean eta baietz esan neskak, txalo egin dezatela guztiek eta jarrai dezala festak” (*Pinto oilarraren ezteiak*).

- “Oilarra puztu egin zen ikaratuta: - Luma bat nire isatsetik? Ezta pentsatu ere! Gero izar bat eskatuko didazu! Ai, esneketari horrek, zuk zer uste duzu? Ez duzu balio, alafede!, nire luma bakar batek adina ere!” (*Pinto oilarraren ezteiak*).

- “Neskame zaharra sorgina zen eta, bere burua estutasun hartan ikusirik, ihes egin nahi izan zuen. Baina ez zioten utzi eta denen artean harrapatu zuten. Hurrengo goizean, ogiak erretzeko labea ongi berotu, eta sorgin zahar hura hantxe kiskali zuten” (*Sorgina eta emakume ederra*).

➤ **Lanbideen inguruan:**

- “Neskato maitea - erran zion erraldoiak-, badinat urrez beteriko sotoak dituen gaztelua. Haugi etxera eta jatekoa prestatu nahi baldin badidan, fortunaz apainduko haut. Instant batez gogoetak egin eta, onartu zuen Zeraldak” (*Zeraldaren erraldoia*).

- “Hau da, hau, lotsagabea!- pentsatu zuen azeriak-. Honek ez du andrea nahi, neskamea nahi du” (*Pinto oilarraren ezteiak*).

- “Nagusi koleratuak eskarmentua eman nahi izan zion. Hala gauzak, zahato ttiki bat luzatu eta neskamea berriro bidali zuen iturrira” (*Sorgina eta emakume ederra*).

- “Neskek: - Nork ez ditu maite hiltzaileak? Suhiltzaileak!” (*Hiltzaileak*).

➤ **Espazioen inguruan:**

- “Nire zakurra pasealekuko putzu guztietan sartzen da. Amak lepotik hartu, eta harraskan sartzen du, berriro zuria bihurtzen den arte. Aldiz, euria ari duenean, (...), aitak bere autoan eramaten nau eskolara” (*Euria ari duenean*).

- “Zeralda gazteluko sukalde erraldoian ohatu eta ez zen kozinatzetik gelditzen” (*Zeraldaren erraldoia*).

➤ **Etxeko lanak/ Zaintza:**

- “Eta behera joan zen, eta han hiru minutu eta berrogeita bost segundoko lasaialdia izan zuen, umeak berarengana berriro etorri baino lehen” (*Bost minutuko lasaialdia*).

- “Gizon gaizo hau gosez hiltzera doa- pentsatu zuen Zeraldak. Eta instant bat galdu gabe, orgatik ontzi zenbait jautsi zituen, egur idorrak metatu eta sua pizturik, kozinatzen hasi zen” (*Zeraldaren erraldoia*).

- “Gaur osteguna da eta ez naiz eskolara joan, tripako minarekin geratu naiz etxean. Amak izara artean estali nau ohean. Bera ere ez da lanera joan. Ni zaindu bitartean, etxeko lanak egiteko aprobetxatuko duela esan dit” (*Garazi Gerezi*).
- “Amonak ez gintuen espero (...). Oinutsik zebilen, trapua esku batean, erratza bestean. Oinak airean. Tximini zulotik atera da. Aspaldi garbitu gabe zuela esanez desenkusatu da” (*Garazi Gerezi*).
- “Lasaitu zenean, aitak oso estu besarkatu zuen. Baina ez zion utzi manta biltzen, ezta ipuinik kontatzen ere. Ez zuen nahi inork hartzea amaren lekua. Baina ama falta” (*Ez da erraza katagorri*).
- “Sofiaren amatxok esan zuen: - Zer egingo dut? Ez dago ezer aitaxoren afarirako; tigreak dena jan du!” (*Meriendatzera etorri zen tigrea*).
- “Afaltzerako amonak dauka dena ongi prestatua; hartza halere dago marruka ez omen da gosetua” (*Amonaren etxera noa*).
- “Esaiozu zure amari dozena bat torrija, ogi bat eta botila bat ardo ekarri behar dizkidazula ordainetan” (*Osaba Otso*).
- “Andre batek ezin zuen umerik eduki. - Ume bat banu, dakidan guztia irakasteko... - Erein hazi hau eta zaindu- esan zion Basoko Andereak” (*Agur, ama!*).

➤ **Ekintzen inguruan:**

- “Hurrengo goizean Sofia eta bere amatxo erosketak egitera joan ziren, eta poltsak jateko gauzez gainezka ekarri zituzten” (*Meriendatzera etorri zen tigrea*).

➤ **Sinbologiaren inguruan:**

- “Bezperako kirol-kazeta irakurtzen ari den aita eta lasai ederrean dagoen amaren erdian egokitu da, izara okotzeraino jasoz” (*Paulen abentura miresgarria*).
- “Txiza egitera jaiki naizenean, ama ikusi dut pasilloan. Aspiragailuari helduta. Hegan” (*Garazi Gerezi*).
- “Agur, aitaxo maitea. Agur, aitaren etxea. Agur, txakurtxo zoroa! (...) Kaixo, amatxo maitea. Kaixo, amaren etxea. Kaixo, katu laztana!” (*Mila bi etxeetan bizi da*).
- “Bihar, ezteien ondotik, Julianaren amantalararekin garbituko ditut hankak. Kantari ariko naiz, atsedean hartuko dut eta nahi adina gari jango. Eta hari ogi gogorra emango diot, aski izango du” (*Pinto oilarraren ezteiak*).